DE TOUTES NOS FORCES ! GURE INDAR GUZIEZ !

POUR NOTRE COOPÉRATION TRANSFRONTALIÈRE



# STRATÉGIE DE COOPÉRATION TRANSFRONTALIÈRE 2020 – 2030

## DE LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE

## EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN

# 2020–2030 MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO ESTRATEGIA

L'EXPRESSION COMMUNE
D'UNE AMBITION PARTAGÉE

ANBIZIO PARTEKATUAREN
ADIERAZPEN KOMUNA

Communauté d'Agglomération Pays Basque
Euskal Hirigune Elkargoa

# UNE CO-CONSTRUCTION À CONSOLIDER AVEC LES PARTENAIRES DE LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE

## MOT DU PRÉSIDENT

Nos territoires ont une longue expérience de la coopération transfrontalière. Cependant, les possibilités de coopération prennent une nouvelle dimension. Avec la création de la Communauté d'Agglomération Pays Basque qui réunit 158 communes, notre Intercommunalité devient un interlocuteur majeur des collectivités et de l'Etat dans ce domaine.

Ainsi, cette nouvelle collectivité s'est-elle rapidement dotée, après sa création, de la compétence coopération européenne, transfrontalière et internationale et entend l'exercer à partir d'une stratégie à définir avec l'ensemble de ses partenaires. La Communauté d'Agglomération Pays Basque affirme dès lors sa volonté de co-construire un projet.

Par ailleurs, l'élargissement des compétences de la collectivité à vingt-et-une politiques publiques lui permet à présent d'agir dans de nombreux domaines potentiellement appréhendés à une échelle transfrontalière en dialogue et complémentarité avec les autres collectivités et structures compétentes et stratégies transfrontalières.

Dans cette perspective, la Communauté d'Agglomération Pays Basque souhaite mettre en place un dispositif partenarial vivant, avec une gouvernance renouvelée dans un espace de dialogue, une plateforme de collaboration et une « fabrique de projets/ actions » à toutes les échelles et au-delà des temporalités politiques. Ateliers d'acteurs, rencontre de collectivités et pilotage partagé ont permis de jeter les pierres d'un chantier à poursuivre en concertation.

La présente proposition de stratégie s'inscrit volontairement en déclinaison du projet communautaire, adossée aux ambitions de cohésion, de transitions et aux défis que la collectivité s'est fixée. Cette stratégie constitue en outre une opportunité collective pour se positionner pleinement dans la nouvelle programmation européenne 2021-2027.

Les évolutions en cours des cadres européens laissent entrevoir des possibilités nouvelles en termes de coopération et d'actions pour les territoires frontaliers avec la perspective d'un droit à l'expérimentation et à la différentiation (Traité d'Aix la Chapelle 22 janvier 2019, projet de loi Collectivité européenne d'Alsace).

**La présente stratégie est proposée comme l'expression d'une vision d'avenir potentiellement commune et dont la mise en œuvre ne relève pas de la seule Communauté d'Agglomération Pays Basque mais des actions de chacun dans le cadre de ses prérogatives.**

**Cette vision d'avenir ne part pas de rien. Elle se nourrit des orientations stratégiques des différents acteurs qui œuvrent de longue date en matière d'actions et de coopérations transfrontalières. Elle considère les très nombreux projets d'ores et déjà engagés.**

**« L'avenir ne se prévoit pas, il se prépare »**

Maurice Blondel - Philosophe

# TALDEAN ERAIKIA, EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO PARTAIDEEKIN SENDOTU BEHARRA

## LEHENDAKARIAREN SOLASA

Gure lurraldeetan, mugaz gaindiko lankidetza esperientzia luzea da. Baina orain, lankidetza paradak beste hein batera iritsi dira. 158 herri biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoa sortu da; hortaz, elkargoen eta Frantziako estatuaren funtsezko solaskide bilakatu da arlo horretan.

Alabaina, elkargo berriak, sortu eta laster, Europako, mugaz gaindiko eta nazioarteko lankidetzaren eskumena hartu zuen; horren gauzatzeko, partaide guziekin batean estrategia baten zehazteko asmo garbia du. Euskal Hirigune Elkargoak, beraz, elkarrekin proiektu baten eraikitzeko xedea baieztatu du.

Bestalde, elkargoaren eskumenak zabaldu dira; egun, hogeita bat politika publiko ditu bere esku. Horri esker, mugaz gaindiko eskalan jorratzen diren hainbat arlotan eragiten ahal du, beste mugaz gaindiko estrategiekin eta elkargo eta egitura eskudunekin mintzatuz eta elkar osatuz.

Horiek horrela, Euskal Hirigune Elkargoak partaidetza-dispositibo bizi bat sortu nahi du, elkarrizketan oinarritu gobernantza berria ukanen duena, baita lankidetza plataforma bat eta eskala guzietako eta epe politikoetatik kanpoko "proiektu/ekintza fabrika" bat ere. Adostasunezko bide horren lehen urratsak egin dira jada, eragile-tailerren, elkargoekiko topaketen eta gidaritza partekatuaren bitartez.

Estrategia proposamen hau, nahitara, elkargoaren proiektuaren ildo beretik pentsatua da; hots, elkargoak finkatu kohesio eta trantsizio xedeekin eta erronkekin bat egiten du. Horrez gain, estrategia hau 2021-2027 Europako plangintza berrian kokatzeko parada kolektiboa ere bada.

Europako koadroak aldatzen ari direnez, mugako lurraldeei lankidetza eta ekintza parada berriak sortzen zaizkie, esperimentazio eta desberdintze eskubidearen menturarekin (2019ko urtarrilaren 22ko Aix la Chapelle-eko ituna, Alsaziako Europako Elkargoaren lege-proiektua).

**Estrategia hau partekatua izateko asmoa duen etorkizunerako ikusmoldearen adierazpen gisa proposatzen dugu. Ez du Euskal Hirigune Elkargoak bakarrik gauzatuko, baizik eta bakoitzak, bere ahalmenen araberako ekintzen bidez.**

**Etorkizunerako ikusmolde hori ez da hutsetik sortu. Mugaz gaindiko ekintzetan eta lankidetzan aspalditik ari diren eragileen norabide estrategikoek elikatua da. Abian diren proiektu ugariak kontuan hartzen ditu.**

**"Etorkizuna ez da aurreikusi behar; prestatu behar da"**

Maurice Blondel - Filosofoa

# SOMMAIRE


INTRODUCTION

Tirer les enseignements du passé pour préparer l'avenir Page 08

I - LA STRATÉGIE : CO-CONSTRUIRE ET FAIRE VIVRE UNE STRATÉGIE PARTAGÉE ET ADAPTÉE AUX ENJEUX TERRITORIAUX

1.1 - L'objectif Page 16

1.2 - Le process Page 18

1.3 - L'architecture de cette stratégie Page 20

II - LE CONTENU : ADOPTER UNE STRATÉGIE AMBITIEUSE POUR PASSER DE LA COOPÉRATION À L'INTÉGRATION DES BASSINS DE VIE

2.1 - Faciliter la vie des habitants et des entreprises dans un bassin de vie transfrontalier Page 30

2.2 - Développer des valeurs et des représentations communes - Forger une appartenance transfrontalière Page 40

2.3 -Relever les défis de la transition écologique, de la gestion de nos ressources et espaces partagés Page 48

2.4 -Promouvoir l'excellence et le rayonnement territorial transfrontalier pour nous positionner ensemble au niveaux euro-régional, national et international Page 56

2.5 - Des axes d'intervention transversaux Page 64

III - LA MISE EN ŒUVRE DE LA STRATÉGIE

3.1 - Une gouvernance transfrontalière à rénover pour répondre aux ambitions stratégiques Page 68

3.2 - Des outils et des méthodes pour piloter la démarche, développer les axes et décliner les actions Page 74

# AURKIBIDEA


## SAR HITZA

Iraganetik ikastea geroaren eraikitzeko 09 Horria

## I - ESTRATEGIA: TOKIKO ERRONKEI EGOKITU ESTRATEGIA PARTEKATUAREN ELKARREKIN ERAIKITZEA ETA BIZIARAZTEA

1.1 - Xedea 17 Horria

1.2 - Prozesua 19 Horria

1.3 - Estrategiaren arkitektura 21 Horria

## II - EDUKIA: ESTRATEGIA HANDINAHIAREN JORRATZEA, LANKIDETZATIK HARAGO, BIZI EREMUEN INTEGRAZIOAREN ERDIESTEKO

2.1 - Mugaz gaindiko bizi eremuko biztanleen eta enpresen biziaren erraztea 31 Horria

2.2 - Balio eta irudikapen komunen garatzea - Mugaz gaindiko kidetasunaren moldatzea 41 Horria

2.3 - Trantsizio ekologikoaren, baliabideen kudeaketaren eta eremu partekatuen erronkei elkarrekin buru egitea 49 Horria

2.4 - Mugaz gaindiko lurraldeko bikaintasunaren eta ospearen sustatzea, Euroeskualde mailan, Estatu mailan eta nazioartean elkarrekin kokatzeko 57 Horria

2.5 - Zeharkako esku hartze ardatzak 65 Horria

## III -ESTRATEGIAREN GAUZATZEA

3.1 - Mugaz gaindiko gobernantzaren berritzea, anbizio estrategikoei ihardesteko - Horretarako, gogoeta batzorde baten sortzea 69 Horria

3.2 - Desmartxaren gidatzeko, ardatzen garatzeko eta ekintzen gauzatzeko tresnak eta metodoak 75 Horria

## CE PROJET EST LE FRUIT D'UN TRAVAIL DE CONCERTATION À POURSUIVRE AVEC LES ACTEURS DU TERRITOIRE ET D'ANALYSE DES STRATÉGIES ET DES PROJETS TRANSFRONTALIERS.

### Il a été co-construit en considérant :

- 30 entretiens individuels auprès des collectivités et de personnes ressources concernées par la coopération transfrontalière (cf. annexe) ;
- L'organisation de 12 ateliers et 2 visites à Bayonne et à San Sébastien
- L'implication de la commission transfrontalière de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.
- La contribution du Conseil de Développement du Pays Basque investi sur le sujet depuis de nombreuses années qui a apporté sa vision grâce à sa participation aux ateliers et à une contribution écrite ;
- La mobilisation d'un comité de pilotage composé des représentants de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, du Gouvernement Basque, de la Diputación Foral du Gipuzkoa, du Gouvernement de Navarre, de la Région Nouvelle Aquitaine, du Département des Pyrénées Atlantiques et de l'État français ;
- L'analyse des projets et des stratégies transfrontalières existantes des collectivités et structures transfrontalières.



ATELIERS DE CO-CONSTRUCTION DE LA STRATÉGIE DE COOPÉRATION TRANSFRONTALIÈRE DE LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE À BAYONNE ET SAINT-SÉBASTIEN

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN MUGAZ GAINDIKO KOOPERAZIO ESTRATEGIAREN ELKAR-ERAIKITZE TAILERRAK (BAIONA – DONOSTIA)

## PROIEKTU HAU LURRALDEKO ERAGILEEKIN ABIATU DEN ETA SEGITU BEHAR DEN HITZARTZE LANAREN FRUITUA DA, MUGAZ GAINDIKO ESTRATEGIAK ETA PROIEKTUAK AZTERTUZ MOLDATU DENA.

**Elkarrekin eraiki dugu, hauek kontuan hartuz:**

- Mugaz gaindiko elkarlanean ari diren elkargo eta jendeekin egin 30 elkarrizketa (ikus eranskina)
- Baionan eta Donostian antolatu 12 tailer eta 2 bisita
- EHEko mugaz gaindiko batzordearen inplikazioa
- Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren ekarpenak, urte asko baitaramatza arlo horretan lanean. Bere ikusmoldea ekarri du, tailerretan parte hartuz eta idatzizko ekarpen baten bidez;
- Euskal Hirigune Elkargoko, Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Nafarroako Gobernuko, Akitania Berriko, Pirinio Atlantikoetako eta Frantziako estatuko ordezkariak biltzen dituen gidaritza batzordearen mobilizazioa;
- Mugaz gaindiko elkargo eta egituren proiektu eta estrategia abiatuen azterketa.



ATELIERS DE CO-CONSTRUCTION DE LA STRATÉGIE DE COOPÉRATION TRANSFRONTALIÈRE DE LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE À BAYONNE ET SAINT-SÉBASTIEN

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN MUGAZ GAINDIKO KOOPERAZIO ESTRATEGIAREN ELKAR-ERAIKITZE TAILERRAK (BAIONA – DONOSTIA)

# INTRODUCTION : TIRER LES ENSEIGNEMENTS DU PASSÉ POUR PRÉPARER L'AVENIR

## 35 ANS DE COOPÉRATION TRANSFRONTALIÈRE INSTITUTIONNELLE (CF. CHRONOGRAMME DÉTAILLÉ EN ANNEXE)

Une coopération institutionnelle initiée sur notre territoire dans les années 80, en même temps que naît le projet d´intégration européenne.

**1983**
Création de la Communauté de Travail des Pyrénées

**1990**
Création du programme européen Interreg

**1990**
Fonds Aquitaine-Euskadi

**1993**
Le District Bayonne Anglet Biarritz et la Diputación Foral du Gipuzkoa créent l'Eurocité Basque (qui prend la forme d'un GEIE en 1997)

Dans les années 90, du régional au local, les structures de coopération se mettent en place alors que l´Europe commence à définir des cadres juridiques pour ce faire, et alloue des moyens financiers (Programme Interreg).

**1995**
Traité de Bayonne entre la France et l´Espagne

**1996**
Le Département des Pyrénées Atlantiques s´inscrit dans la gestion du programme Interreg et passe des accords de coopération bilatérale avec la Communauté Foral du Navarre (2001) et la Diputación Foral du Gipuzkoa (2005)

**1998**
Naissance du Consorcio transfrontalier Bidassoa-Txingudi

**2002**
Naissance de Xareta, autour d´une première convention de coopération (association en 2004)

L'arrivée de nouveaux acteurs dans les années 2000 & 2010. Certains des acteurs s´approprient les cadres de gouvernance proposés par l´arsenal juridique européen :

**2007**
Conférence euro-régionale devenue la Conférence Atlantique Transpyrénées (CAT),

**2010**
GEIE - CCI transfrontalière Bihartean,

**2011**
GECT Eurorégional Aquitaine-Euskadi associant en 2016 la Navarre (NAEN - Eurorégion Nouvelle-Aquitaine-Euskadi-Navarre)

**2017**
CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque) et prise de compétence facultative sur le transfrontalier en décembre 2018.

# SAR HITZA: IRAGANETIK IKASTEA GEROAREN ERAIKITZEKO

## 35 URTEKO MUGAZ GAINDIKO ERAKUNDE-LANKIDETZA (IK. KRONOGRAMO ZEHATZA ERANSKINEAN)

Gure lurraldean, erakundeen arteko lankidetza 80ko hamarkadan hasi zen, europar integrazio proiektua sortzearekin batean.

**1983**
Piriniotako Lan Elkargoa sortzea

**1990**
Interreg Europako programaren sortzea

**1990**
Akitania-Euskadi Fondoa

**1993**
Baiona Angelu Biarritz distrikak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Eurohiria sortu zuten (1997an EIET forma hartu zuena)

90eko hamarkadan, eskualdeetan eta tokian toki, lankidetza egiturak sortu ziren; aldi berean, Europa horretarako koadro juridikoak zehazten eta diru-laguntzak ematen hasi zen (Interreg programa).

**1995**
Frantziako Errepublikak eta Espainiako Erresumak Baionako Hitzarmena izenpetu zuten

**1996**
Pirinio Atlantikoetako Departamendua Interreg programaren kudeaketan sartu zen eta aldebiko lankidetza akordioak sinatu zituen Nafarroako Foru Komunitatearekin (2001) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (2005)

**1998**
Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren sortzea

**2002**
Xaretaren sortzea, lehen lankidetza hitzarmen baten inguruan (elkartea 2004an)

2000ko & 2010eko hamarkadetan eragile berriak iritsi ziren. Eragile horietako batzuek Europak proposatu koadro juridiko ugariak berenganatu zituzten:

**2007**
Euroeskualdeko konferentzia, gero Pirinioen Konferentzia Atlantikoa bilakatuko zena (CAT),

**2010**
Bihartean EIET Mugaz gaindiko MIG egitura,

**2011**
Akitania-Euskadi Euroeskualdeko LLETa, 2016an Nafarroa barneratu zuena (Akitania Berria-Euskari-Nafarroa ABEN euroeskualdea)

**2017**
Euskal Hirigune Elkargoa (EHE); eta, 2018ko abenduan, mugaz gaindiko gaien hautazko eskumenaren hartzea.

## UNE VISION D'AVENIR
## QUI SE NOURRIT DES EXPÉRIENCES
## ET DES STRATÉGIES EN COURS

**Le territoire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque est concerné par de multiples stratégies de coopérations établies par des structures aux statuts divers plus ou moins anciennes impulsant de nombreux projets (Cf. annexe 4).**

EXEMPLES DE CADRES STRATÉGIQUES ET D'ACTIONS :

- Communauté de Travail des Pyrénées - Consorcio : Stratégie Pyrénéenne 2024
- Eurorégion Nouvelle-Aquitaine-Euskadi-Navarre - GECT : Plan Stratégique 2014 - 2020
- Agence transfrontalière pour le développement de l'Eurocité basque - GEIE : Livre Blanc 2001 et Plan Stratégique Opérationnel 2016 - 2020
- Consorcio Bidassoa-Txingudi
- Xareta - Association loi 1901
- Plateforme logistique Aquitaine-Euskadi (PLAE) - GEIE thématique dissous en 2011
- Conférence Atlantique Transpyrénées - Association : Plan d'Action 2020 - 2023
- Bihartean - Coopération économique - GEIE
- L'ancienne Communauté d'Agglomération Sud Pays Basque : Stratégie 2014 - 2020
- Commissions Syndicales et actions transfrontalières
- Mémorandum de Coopération Institutionnelle entre le Gouvernement d'Euskadi - Communauté d'Agglomération Pays Basque 2019
- Stratégies Conseil des élus Pays Basque : Pays Basque 2010, 2020, « Aménageons le Pays Basque »
- Etc.

L'ensemble de ces cadres couvre les problématiques majeures à diverses échelles, impulsant des actions répondant à des enjeux qui font encore évidence et qui sont ainsi repris dans la stratégie proposée : mobilité, environnement et changement climatique, économie, culture, multilinguisme, pratiques sociales, gestion de l'espace, etc.

Ces actions sont souvent conduites en coopération transfrontalière en vue d'être financées par des programmes européens (POCTEFA...). Cependant, la coopération ne doit se résumer à la seule opportunité de recherche de financement.

*« Le transfrontalier ne peut se suffire d'une logique d'opportunités pour monter des projets »*

Contribution Conseil de développement

Les structures de coopération sont loin d'être les seuls vecteurs de projets transfrontaliers. Les actions sont également le fait de nombreux autres acteurs publics et privés de la société civile qui pratiquent le transfrontalier. La diversité d´acteurs, de stratégies et de projets, ponctuellement aidés par les programmes de financement, fait « du transfrontalier » un champ plus vivant qu´il n´y parait.

Cette diversité rend difficile la lecture globale des efforts consentis et des avancées locales en matière de « cohésion territoriale, économique et sociale » (expression générique des objectifs de la coopération transfrontalière promus par l´UE). Beaucoup d'actions sont parfois méconnues et mériteraient d'être recensées pour être partagées et situées dans la présente stratégie (clubs sportifs, activités associatives, relations inter- entreprises, sous-traitance, etc.).

*« Analyser les pratiques sociales et recenser la dynamique des projets transfrontaliers »*

Contribution Conseil de développement

## ETORKIZUNERAKO IKUSMOLDEA, BIDEAN DIREN ESPERIENTZIA ETA ESTRATEGIEK ELIKATUA

**Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean lankidetza estrategia anitz daude. Proiektu ugari bultzatzen dituzten hainbat gisatako egiturek sortuak dira, aspaldi edo berrikiago (ikus 4. eranskina).**

KOADRO ESTRATEGIKO ETA EKINTZA ADIBIDEAK:

- Pirinioetako Lan Elkartea - Partzuergoa: Pirinioetako Estrategia 2024
- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea - LLET: 2014 - 2020 plan estrategikoa
- Euskal Eurohiriaren garapenerako mugaz gaindiko agentzia - EIET: 2001 Liburu Zuria eta 2016 - 2020 Eragiketa-Plan Estrategikoa
- Bidasoa-Txingudi Partzuergoa
- Xareta - 1901eko legearen araberako elkartea
- Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoa (AEPL) - EIET tematikoa, 2011n desegina
- Pirinioen Konferentzia Atlantikoa - Elkartea: 2020 - 2023 ekintza-plana
- Bihartean - Lankidetza ekonomikoa - EIET
- Hego Lapurdiko Hirigune ohia: 2014 - 2020 estrategia
- Sindikatu Batzordeak eta mugaz gaindiko ekintzak
- Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko lankidetza instituzionalerako memoranduma - 2019
- Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren estrategiak: Pays Basque 2010, 2020, “Ipar Euskal Herria antola dezagun”
- Etab.

Koadro horiek guziek funtsezko problematikak jorratzen dituzte, hainbat eskalatan, eta ekintza anitz bultzatzen dituzte, gure estrategian ere kontuan hartuak diren erronka nagusiei ihardesteko: mugikortasuna, ingurumena eta klima aldaketa, ekonomia, kultura, eleaniztasuna, gizarte jokabideak, espazioaren kudeaketa etab.

Maiz, ekintza horiek mugaz gaindiko lankidetzan eramanak dira, Europako programen finantzamenduak lortu ahal izateko (POCTEFA...). Baina lankidetza ez da finantzamenduen bilatzeko parada izatera mugatu behar.

---

*“Mugaz gaindikotasuna ez da proiektuen muntatzeko logikara mugatu behar”*

Garapen Kontseiluaren ekarpena

---

Lankidetza egiturak ez dira mugaz gaindiko proiektuen eramaile bakarrak, ezta gutiagorik ere. Gizarte zibileko beste eragile pribatu eta publiko anitzek ere mugaz gaindiko proiektuak sortzen eta gauzatzen dituzte. Eragileak, estrategiak eta proiektuak gisa guzietakoak dira, finantzamendu programen barne eta horietatik kanpo; “mugaz gaindikotasuna”, beraz, iduri baino aise arlo biziagoa da.

Aniztasun hori dela eta, zaila da tokian toki “lurralde, ekonomia eta gizarte kohesioaren” arloan (EBk sustatu mugaz gaindiko lankidetzaren helburuen adierazpen generikoak dioenez) egiten diren indarrak eta aitzinamenduak osotasunean ulertzea. Ekintza anitz isilpean egoten dira; alta, zerrendatuak izatea merezi lukete, partekatzeko eta estrategia orokorrean kokatzeko (kirol klubak, elkarte jarduerak, enpresen arteko harremanak, azpikontratazioa etab.).

---

*“Gizarte jokabideen aztertzea eta mugaz gaindiko proiektuen dinamikaren zerrendatzea”*

Garapen Konsteilaren ekarpena

---

## BILAN, QUESTIONNEMENT ET PRÉCONISATIONS LIVRÉS PAR LES ACTEURS DU TERRITOIRE

**Les entretiens et les différentes contributions permettent de tirer profit de l'enseignement des expériences passées tout en se projetant vers l'avenir.**

**Des difficultés et des freins à la coopération face auxquels il convient d'agir et de composer**

- Asymétries institutionnelles : compétences, moyens budgétaires, organisations administratives
- Problématiques juridiques et règlementaires
- Décalages de calendriers électoraux rendant la continuité difficile
- Complexité à se comprendre du fait de la barrière de la langue
- Des perceptions mutuelles incomplètes et des différences de culture de travail
- Pas d'évidence immédiate des besoins transfrontaliers si l'on compare notre territoire à d'autres frontières
- Une démarche très dépendante du volontarisme des acteurs politiques qui s´y engagent
- Manque d´espaces de dialogue institutionnel réguliers pour mettre en discussion les sujets et discuter librement.

**Des questionnements & des préconisations à considérer autant que faire se peut**

- S'interroger sur la plus-value transfrontière des actions conduites en coopération
- Mesurer en quoi les politiques de la Communauté d'Agglomération Pays Basque peuvent être optimisées grâce au transfrontalier
- Promouvoir des actions spatialisées, structurantes et lisibles, dont les ambitions sont élevées
- Faire évoluer les représentations, favoriser l'interconnaissance, la rencontre et l´échange
- Faire émerger et s'appuyer sur des réseaux d'acteurs pour dépasser les cadres institutionnels et réduire la dépendance au volontarisme politique fortement lié aux individualités
- Pérenniser les échanges et consolider les partenariats après l'obtention des financements et la finalisation des projets (POCTEFA notamment)
- Objectiver la réalité des échanges au-delà du domicile / emploi et s'appuyer sur les pratiques sociales
- Poursuivre les projets déjà engagés, concrets, tout en les resituant dans une stratégie
- Articuler les cadres existants et organiser une gouvernance multi-niveaux
- Comment avoir de la lisibilité sur les différentes initiatives transfrontalières ?
- Comment prolonger les initiatives engagées au-delà d´un programme POCTEFA ?
- Créer des interfaçages sociétaux : il faut des agents de développement de la coopération

---

*« Il convient de s'appuyer sur ce qui existe et sur les opportunités »*

Parole d'acteur (Eva Fernandez, directrice du Consorcio transfrontalier Bidassoa-Txingudi)

---

## LURRALDEKO ERAGILEEN BILANA, ZALANTZAK ETA AHOLKUAK

**Elkarrizketen egiteak eta ekarpenen biltzeak laguntzen du iragan esperientzien irakaspenen hartzen eta, aldi beran, gerora so egiten.**

**Lankidetzaren zailtasun eta oztopoen kontuan hartzea, araberan jarduteko**

- Erakundeen asimetria: eskumenak, aurrekontu-ahalak, administrazio-antolaketak
- Lege eta araudi problematikak
- Hauteskundeen egutegien tartekatzea, eta beraz, irauteko zailtasunak
- Hizkuntza ezberdintasunak direla eta, elkarren ulertzeko zailtasunak
- Elkarren ikusmoldeetan osotasun falta eta lan kultura ezberdinak
- Gure lurraldea beste muga batzuekin konparatuz, mugaz gaindiko beharrak ez berehala agerikoak
- Desmartxa zinez lankidetzan engaiatzen diren eragile politikoen nahikeriaren araberakoa izatea
- Erakundeen elkarrizketa erregularrerako espazio falta, gaien aipatzeko eta libreki eztabaidatzeko.

**Zalantzen eta aholkuen kontuan hartzea, ahal den neurrian**

- Lankidetzan eraman ekintzen mugaz gaindikotasunaren abantailei buruz gogoetatzea
- EHEren politikak mugaz gaindikotasunari esker zertan optimiza daitezkeen neurtzea
- Lekuan kokatu anbizio handiko ekintza egituratzaile eta irakurgarrien sustatzea
- Irudikapenen aldaraztea, elkarren ezagutzaren, topaketen eta harremanen laguntzea
- Eragile-sareen azaleratzea eta horietan oinarritzea erakunde-koadroetatik harago joateko, eta nahikeria politikoenganako menpekotasunaren murriztea, norbanakoei lotuegiak baitira
- Finantzamenduak lortu eta proiektuak bururatu eta, trukeen iraunaraztea eta partaidetzen sendotzea (POCTEFA bereziki)
- Etxetik / lanetik kanpoko trukeen errealitatea modu objektiboan hartzea eta gizarte jokabideetan oinarritzea
- Abiatuak diren proiektu konkretuen segiaraztea, estrategia orokorrean birkokatuz
- Egungo koadroen arteko loturen egitea eta maila anitzeko gobernantzaren antolatzea
- Zer egin mugaz gaindiko ekimenak irakurgarriak izan daitezen?
- POCTEFA programetatik kanpo abiatu ekimenak nola luzatu?
- Gizarte interfazeen sortzea: lankidetzaren garapenaren eragileak behar dira

---

*"Dagoenean eta paradetan oinarritzea komeni da"*

Eragile hitza (Eva Fernandez, Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko partzuergoko zuzendaria)

---

# I.

# LA STRATÉGIE : CO-CONSTRUIRE ET FAIRE VIVRE UNE STRATÉGIE PARTAGÉE ET ADAPTÉE AUX ENJEUX TERRITORIAUX

# ESTRATEGIA: TOKIKO ERRONKEI EGOKITU ESTRATEGIA PARTEKATUAREN ELKARREKIN ERAIKITZEA ETA BIZIARAZTEA

## 1.1. L'OBJECTIF

Servir la cohésion & les transitions par la collaboration transfrontalière pour relever les défis du projet communautaire tout en intégrant les aspirations des différents acteurs.

## 1.2. LE PROCESS

Créer un espace d'échange et de travail en mode *« work in progress »*, capable de nourrir et de faire vivre la stratégie durablement.

## 1.3. L'ARCHITECTURE DE CETTE STRATÉGIE : QUATRE PILIERS À METTRE EN TENSION

- Acteurs/compétences
- Échelles géographiques et d'enjeux
- Temporalités
- Orientations stratégiques

## 1.1. XEDEA

Mugaz gaindiko lankidetzaren bidez kohesioaren eta trantsizioen alde egitea, elkargoaren proiektuaren erronkei eragileen nahikundeak barneratuz ihardesteko.

## 1.2. PROZESUA

*Work in progress* gisako harreman eta lan eremuen sortzea, estrategiaren epe luzean elikatzeko eta biziarazteko gai litzatekeena.

## 1.3. ESTRATEGIAREN ARKITEKTURA: OREKATU BEHARREKO LAU ZUTABE

- Eragileak/eskumenak
- Maila geografikoak eta erronka maiak
- Epeak
- Norabide estrategikoak



## I.1 L'OBJECTIF :

**Servir la cohésion et les transitions par la coopération transfrontalière pour relever les défis du projet communautaire tout en intégrant les aspirations des différents acteurs.**

Il s'agit d'œuvrer collectivement pour appuyer les transitions vers un modèle de développement plus respectueux de l'environnement et des humains ainsi que pour une plus grande cohésion sociale et territoriale.

*« La cohésion est notre culture, la transition notre conscience »*

Jean-René Etchegaray - Conseil communautaire - 2 février 2019

### Transitions et mutations de nos modèles de développement : un impératif qui s'impose à tous (changement climatique, modes de vies, ressources…).

Agir sur la transition écologique et l'environnement est une impérieuse nécessité pouvant constituer l'essence de notre feuille de route partagée jusque dans l'excellence économique et l'innovation (croissance bleue, agri-agroalimentaire, énergies renouvelables, construction durable, économie circulaire, tourisme écoresponsable, etc.

### Cohésion sociale et territoriale pour faire « communauté » : des valeurs à partager au-delà de nos frontières (offre et accès aux services, concepts, culture…).

L'accessibilité universelle de l'offre d'équipements et services à l'échelle transfrontalière peut être une opportunité pour favoriser l'équité sociale et territoriale. Elle constitue un facteur potentiel de cohésion et d'intégration de nos habitants et des territoires qui composent notre système transfrontalier.

La cohésion sociale et territoriale vise également des complémentarités à organiser entre nos espaces ruraux et urbains. Elle concerne aussi les nécessaires solidarités à développer envers nos populations les plus fragiles ainsi que nos jeunes et nos aînés.

*« Aborder le travail transfrontalier dans une approche interculturelle »*

Contribution Conseil de développement

### Des défis communautaires qui peuvent trouver leurs extensions dans une dimension transfrontalière et leur fondement dans les orientations européennes.

Ces défis concernent : la préservation des biens communs des paysages et des patrimoines, la promotion de l'innovation au service de la mutation des moteurs économiques intégrant les nouvelles aspirations sociétales, territoriales et environnementales, la conception d'un modèle d'aménagement plus vertueux, la construction des alliances nécessaires au service d'un projet et la réduction des inégalités sociales et territoriales.

## I.1 XEDEA:

**Mugaz gaindiko lankidetzaren bidez kohesioaren eta trantsizioen alde egitea, elkargoaren proiektuaren erronkei eragileen nahikundeak barneratuz ihardesteko.**

Elkarrekin aritu behar gara, trantsizioak ingurumena eta gizakiak gehiago errespetatzen dituen garapen-eredura bideratzeko eta gizarte eta lurralde kohesioaren indartzeko.

*“Kohesioa gure kulturatik dator; trantsizioa, kontzientziatik”*

Jean-René Etchegaray - Elkargo kontseilua - 2019ko otsailaren 2a

### Gure garapen ereduen trantsizioak eta aldaketak: denoi ezinbestekoa bilakatu zaigun eginbeharra (klima aldaketa, bizimoldeak, baliabideak...)

Trantsizio ekologikoari eta ingurumenari buruz ekitea baitezpadakoa da, eta gure bide-orri partekatuaren funtsean ezar daiteke, bikaintasun ekonomikoa eta berrikuntza ere barneratuz (hazkunde urdina, laborantza eta laborantzako elikagaiak, energia berriztagarriak, eraikuntza iraunkorra, ekonomia zirkularra, turismo ekoarduratsua etab.)

### Gizarte eta lurralde kohesioa, “komunitatea” osatzeko: gure mugetatik at partekatu beharreko balioak (zerbitzu, kontzeptu eta kultur eskaintza eta erabilgarritasuna)

Mugaz gaindiko mailan ekipamendu eta zerbitzu eskaintza denen eskura ematea gizarte eta lurralde zuzentasunaren indartzeko parada izan daiteke. Gure mugaz gaindiko sistema osatzen duten biztanleen eta lurraldeen kohesioaren eta integrazioaren alde egin dezake. Gizarte eta lurralde kohesioak osagarritasunak ere sortu nahi ditu, bereziki gure landa eta hiri guneen artean antolatzekoak. Egoera desegonkorrenetan diren biztanle taldeenganako, gazteenganako eta adinekoenganako ezinbesteko elkartasuna ildo horretan sartzen da.

*“Mugaz gaindiko lana kulturarteko planteamendutik jorratzea”*

Garapen Kontseiluaren ekarpena

### Elkargoaren erronkak mugaz gaindi heda eta Europaren norabideetan oinarri daitezke

Elkargoaren erronka horiek arlo hauetakoak dira: ondasun komunen, paisaien eta ondareen babestea; gizarte, lurralde eta ingurumen nahikunde berriak barne hartzen dituzten akuilu ekonomikoen aldaketari ihardetsiko dion berrikuntzaren sustatzea; bertute gehiagoko antolamendu-ereduaren diseinatzea; proiektuaren mesederako behar diren aliantzen eraikitzea; eta gizarte eta lurralde desoreken murriztea.



## I.2 LE PROCESS :

### Créer des espaces d'échanges et de travail en mode « work in progress » capable de nourrir et de faire vivre la stratégie durablement

### La Loi de Modernisation de l'Action Publique Territoriale et d'Affirmation des Métropoles dite Loi MAPTAM crée les Schémas Coopération Transfrontalière pour les métropoles.
### Plus qu'un schéma, une stratégie.

En France, la loi MAPTAM instaure en 2014 l'obligation pour les métropoles frontalières de réaliser des schémas de coopération transfrontalière. Bien que la Communauté d'Agglomération Pays Basque ne soit pas concernée, elle a souhaité de par la réalité historique, territoriale, humaine et nouvellement institutionnelle, prendre pour exemple ce schéma pour bâtir une stratégie partagée.

### Une stratégie à façonner avec les partenaires pour une véritable co-construction et adhésion du plus grand nombre.

La définition de la stratégie transfrontalière ne peut-être que collective au regard de la diversité des acteurs et de la multiplicité des compétences. Elle implique de partager préalablement une vision, un récit, pour co-construire une volonté d'actions dont le suivi et la mise en œuvre impose l'adhésion du plus grand nombre (collectivités & société civile). Tout comme les autres acteurs, la Communauté d'Agglomération Pays Basque prendra sa part en lien avec ses champs de compétences et ses prérogatives.

### Plus qu'une fin en soi, une démarche en « work in progress » et le début d'un chantier.

La co-construction de cette vision et de cette volonté commune d'actions doit s'inscrire dans le temps. Les ambitions, les champs d'actions et les principes de mise en œuvre ci-après proposés ne constituent pas une fin en soi mais un objet d'échanges. Ainsi, plus qu'un projet, la Communauté d'Agglomération Pays Basque propose à ses partenaires un process en « work in progress » laissant place à l'expérimentation collective.



# 1.2 PROZESUA:

## Work in progress gisako harreman eta lan eremuen sortzea, estrategiaren epe luzean elikatzeko eta biziarazteko gai litzatekeena

### Lurraldeko ekintza publikoko modernizazioaren eta metropoliko baieztapenaren MAPTAM legeak metropoliendako Mugaz Gaindiko Lankidetza Eskemak sortzen ditu.
### Eskema baino gehiago: estrategia

Frantzian, 2014an, MAPTAM legeak mugako metropoliak mugaz gaindiko lankidetza eskemak sortzera behartu zituen. Legea EHEri ez dagokion arren, bere historia, lurralde, giza eta orain erakunde egoera dela eta, eskema hori adibide gisa hartu nahi izan du estrategia partekatu baten eraikitzeko.

### Estrategia partaideekin moldatu behar da, egiazki elkarrekin eraikia izan dadin eta ahal bezain bat jendek bat egin dezan estrategiarekin

Mugaz gaindiko estrategia taldean zehaztea ezinbestekoa da, eragileak gisa guzietakoak baitira, baita eskumenak ere. Estrategia zehaztu aitzin, ikusmoldeak eta narrazioak partekatu behar dira, nahikeria elkarrekin eraikitzeko eta ekintzen segimendua eta gauzatzea ongi iragateko beharrezkoa baita ahal bezain bat jendek estrategiarekin bat egitea (elkargoek & gizarte zibilak). Beste eragileek bezala, EHEk bere eskumen arloen eta ahalmenen arabera parte hartuko du.

### Estrategia ez da, berez, jomuga izan behar, baizik eta work in progress desmartxa eta. Bide baten hasiera

Ikusmolde horren eta ekiteko nahikeria partekatu horren elkarrekin behar bezala eraikitzeko, denbora behar da. Beherago proposatzen ditugun anbizio, ekintza arlo eta gauzatze printzipioak ez dira jomugak, baizik eta elkarrizketarako gaiak. Hala, EHEk partaideei ez die proiektu bat proposatzen, baizik eta *work in progress* gisako prozesua, taldean esperimentatzeko parada ematen duena.



# 1.3 L'ARCHITECTURE DE CETTE STRATÉGIE :

## Quatre piliers à mettre en tension

La co-construction de la stratégie et surtout sa mise en œuvre constituent un véritable challenge au regard de la complexité à mettre en tension les besoins des acteurs et leurs compétences respectives, les échelles géographiques ou d'enjeux auxquels se réfèrent les projets et les ambitions, les temporalités aussi bien techniques que politiques, autour d'orientations claires et partagées.

Cette complexité nécessite agilité et souplesse dans les dispositifs de mise en œuvre proposés.

### PILIER 1 : Considérer les besoins des différents acteurs, combiner les niveaux de compétences et maîtrises d'ouvrage (cf. annexe 3).

Les champs de compétences, les prérogatives, les autonomies décisionnelles et financières et les capacités d'intervention diffèrent d'une collectivité à l'autre notamment dans une dimension transfrontalière. Il conviendra de s'accorder sur l'espace d'action légitime de chacun et d'articuler les compétences ainsi que les moyens au service d'un projet commun. Cela nécessite préalablement de partager une connaissance plus fine des organisations de chacun.

*« Il y a un besoin d'identification de partenariats possibles au bon niveau »*

Parole d'acteur (Marc Cabane - Conseiller départemental délégué aux politiques contractuelles et à la coopération transfrontalière)



## 1.3 ESTRATEGIAREN ARKITEKTURA:

### Orekatu beharreko lau zutabe

Estrategia elkarrekin eraikitzea eta, are gehiago, gauzatzea, egiazko erronkak dira; izan ere, zinez zaila da eragileen beharrak eta bakoitzaren eskumenak, proiektuei eta anbizioei dagozkien eskala geografikoak eta epe tekniko eta politikoak norabide argi eta partekatuen inguruan antolatzea.

Konplexutasun hori dela eta, proposatu gauzatze dispositiboek bizkorrak eta malguak izan behar dute.

### 1.ZUTABE : Eragile guzien beharren kontuan hartzea, eskumen mailen eta obragintzen konbinatzea (ikus 3. eranskina)

Elkargo batetik bestera, eskumen arloak, ahalmenak, erabaki eta finantza autonomiak eta esku hartze gaitasunak ezberdinak dira, are gehiago mugaz gaindiko kasuetan. Bakoitzari dagokion ekintza-eremua adostu beharko da, eta eskumenak eta bitartekoak antolatu beharko dira, proiektu partekatuaren zerbitzura. Horretarako, ezinbestekoa da bakoitzaren antolaketa aitzinetik hobeki ezagutzea.

*"Maila egokian sor daitezkeen partaidetzak identifikatzeko beharra dago"*

Eragile hitza (Marc Cabane - Departamendu kontseilaria, kontratu bidezko politiken eta mugaz gaindiko lankidetzaren ordezkaria)

# 1.3



## PILIER 2 : Tenir compte des temporalités qu'elles soient politiques ou liées aux besoins de mise en œuvre.

La stratégie telle que proposée dans une perspective à 10 ans doit considérer les temporalités politiques et les calendriers électoraux de part et d'autre de la frontière.

Cette réalité nécessite de penser des ambitions et des projets qui dépassent le seul cadre institutionnel dans leur mise en œuvre et leur suivi en s'appuyant sur les acteurs de terrain.

De même, tout en tenant compte des calendriers imposés par les programmes européens, la stratégie doit permettre de dépasser les partenariats d'opportunité liés au cadencement des appels à projets et construire de véritables coopérations.

*« Il faut faire perdurer les réseaux qui ont été créés au-delà du temps des projets »*

Contribution du Conseil de développement

## PILIER 3 : S'appuyer sur des orientations stratégiques claires et partagées.

## PILIER 4 : Adapter les échelles de gouvernance et les espaces de coopération aux niveaux d'enjeux.

*« La question est donc de savoir quelles ambitions se donner à plusieurs échelles »*

Parole d'acteur (Battitta Boloquy, ancien directeur du Conseil des élus du Pays Basque)

Les niveaux des enjeux qui concernent les territoires transfrontaliers, du local à l'international, sont variables d'une problématique à l'autre. Il conviendra d'adapter les échelles de gouvernance et les espaces de coopération en conséquence.

**Des enjeux transfrontaliers aux niveaux européens et internationaux** (accessibilités maritime, ferroviaire, aérienne, conquête de marchés à l'international, compétitivité et rayonnement, etc.). **Des enjeux transfrontaliers au niveau interrégional** (recherche, enseignement supérieur, aéroports, stratégies de développement et d'aménagement exprimées dans le Schéma Régional d'Aménagement, de Développement Durable, et d'Egalité des Territoires (SRADDET), dans le DOT (Directrices de Ordenación Territorial, Agenda Urbana, ...).

## 2.ZUTABE : Politikei eta gauzatze beharrei lotu epeen kontuan hartzea

Hemen proposatu estrategiak 10 urteko perspektiba du; mugaren bi aldeetako epe politikoak eta hauteskunde egutegiak kontuan hartu behar ditu.

Horretarako, anbizioak eta proiektuak erakunde koadrotik harago planteatu behar dira, gauzatzeari eta segimenduari dagokienez bereziki, tokian tokiko eragileekin lan eginez.

Halaber, Europako programek finkatzen dituzten egutegiak kontuan hartuta ere, estrategiak proiektu-deialdien erritmoei lotu partaidetza-paradetatik harago joatea eta egiazko lankidetzen eraikitzea ahalbidetu behar du.

*"Proiektuak bururatu eta, sortu sareak iraunarazi behar dira"*

Garapen Kontseiluaren ekarpena

## 3.ZUTABE : Norabide estrategiko argi eta partekatuetan oinarritzea

## 4.ZUTABE : Gobernantza eskalak eta lankidetza eremuak erronka-mailei egokitzea

*"Jakin behar da eskala bakoitzarentzat zein anbizio hautatu"*

Eragile hitza (Battitta Boloquy, Hautetsien Kontseiluko zuzendari ohia)

Mugaz gaindiko lurraldeetako erronken maila problematika batetik bestera aldatzen da, tokian tokikotik nazioartekotasunera. Gobernantza eskalak eta lankidetza eremuak horren arabera egokitu beharko dira.

**Europako eta nazioarteko mailako mugaz gaindiko erronkak** (itsaso, trenbide eta aire bidezko sarbideak, nazioarteko merkatuen erdiestea, lehiakortasuna eta ospea etab.). **Eskualde arteko mugaz gaindiko erronkak** (ikerketa, goi-mailako hezkuntza, aireportuak, SRADDET Eskualdeko Lurraldeen Antolamendu, Garapen Iraunkor eta Berdintasun Eskeman, DOT Lurralde Antolamendu Gidalerroetan etab. adierazi garapen eta antolamendu estrategiak...)






# 1.3



*« Tout ne passe pas par l'échelon local »*

Parole d'acteur (Marc Cabane - Conseiller départemental délégué aux politiques contractuelles et à la coopération transfrontalière)

La gestion d'enjeux transfrontaliers de niveaux interrégionaux, européens et internationaux, a une incidence sur nos territoires locaux nécessitant la recherche de synergie et d'articulation jusque dans les échelles de gouvernance et les espaces de coopération (stratégie de développement de l'enseignement supérieur / recherche et implantation territoriale - cf. Ecole d'ingénieurs Estia ; transition écologique et changement climatique en lien avec la montagne, le littoral, etc.)

*« Il n'y a pas de transfrontalier en soi, il y a du transfrontalier situé »*

Parole d'acteur (Daniel Behar - Acadie)

## Des enjeux transfrontaliers plus locaux :

### Liés à la gestion de la vie quotidienne :

- Pour les habitants et les entreprises des territoires frontaliers (sécurité, scolarité, approvisionnent de l'eau et gestion des déchets…), des enjeux pragmatiques sur des espaces de contact avec une différenciation à considérer entre les espaces en situation urbaine et rurale.
- Ceux de la conurbation littorale, des villes et des entités villageoises les plus proches notamment dans une logique d'espaces de vie élargis (échanges liés aux commerces, à la culture, aux loisirs, aux équipements et aux services, à la gestion des espaces et de leur fréquentation, etc.).

*« La proximité crée de la solidarité »*

Parole d'acteur (Hervé Jonathan, Sous-Préfet de Bayonne)

### Liés à la gestion d'un socle territorial local et environnemental commun

comme la montagne, le littoral et les bassins versants,

l'océan, les ressources agricoles et autres…

*"Dena ez da tokian tokiko mailan gertatzen"*

Eragile hitza (Marc Cabane - Departamendu kontseilaria, kontratu bidezko politiken eta mugaz gaindiko lankidetzaren ordezkaria)

Eskualde arteko, Europako eta nazioarteko mailako mugaz gaindiko erronken kudeaketak badu eraginik gure tokiko lurraldeetan, sinergia eta loturak bilatzea beharrezkoa baitzaie, besteak beste, gobernantza eskalei eta lankidetza eremuei buruz (goi-mailako garapen/ikerketa eta lurralde ezarpen estrategia - ikus. Estia ingeniari-eskola; trantsizio ekologikoa eta mendiarekin eta itsasbazterrarekin lotu klima aldaketa etab.)

*"Mugaz gaindikotasunik, berez, ez da; mugaz gaindikotasun oro nonbait kokatua da"*

Eragile hitza (Daniel Behar - Acadie)

## Mugaz gaindiko erronka tokikoagoak:

### Eguneroko biziaren kudeaketari lotuak:

- Mugako lurraldeetako biztanle eta enpresentzat (segurtasuna, eskolatzea, ur hornidura eta hondakinen kudeaketa...), erronka pragmatikoak harreman eremuetan, hiri eta landa egoeren arteko ezberdintasuna kontuan hartuz.
- Itsasbazterreko konurbaziokoak, hirietakoak eta hurbilen diren herri ttipietakoak, bereziki bizi-eremuen zabaltzeko logikan (harremanak merkataritzan, kulturan, aisialdietan, ekipamendu eta zerbitzuetan, eremuen antolaketan etab.).

*"Hurbiltasunak elkartasuna dakar"*

Eragile hitza (Hervé Jonathan, Baionako suprefeta)

### Tokiko ingurumen komunen kudeaketari lotuak;

adibidez, mendiari, itsasbazterrari eta arro hidrografikoei, ozeanoari, laborantza baliabideei eta abar.



# II.

# LE CONTENU : ADOPTER UNE STRATÉGIE AMBITIEUSE POUR PASSER DE LA COOPÉRATION À L'INTÉGRATION DES BASSINS DE VIE

# EDUKIA : ESTRATEGIA HANDINAHIAREN JORRATZEA, LANKIDETZATIK HARAGO, BIZI EREMUEN INTEGRAZIOAREN ERDIESTEKO

## 2.1. AMBITION 1

Faciliter la vie des habitants et des entreprises dans un bassin de vie transfrontalier.

## 2.2 - AMBITION 2

Développer des valeurs et des représentations communes. Forger une appartenance transfrontalière.

## 2.3 - AMBITION 3

Relever les défis de la transition écologique, de la gestion de nos ressources et espaces partagés.

## 2.4 - AMBITION 4

Promouvoir l'excellence et le rayonnement territorial transfrontalier pour nous positionner ensemble au niveaux euro-régional, national et international.

## 2.5 - AMBITION 5

Des axes d'intervention transversaux.

## 2.1 - 1 ANBIZIOA

Mugaz gaindiko bizi eremuko biztanleen eta enpresen biziaren erraztea.

## 2.2 - 2 ANBIZIOA

Balio eta irudikapen komunen garatzea. Mugaz gaindiko kidetasunaren moldatzea.

## 2.3 - 3 ANBIZIOA

Trantsizio ekologikoaren, baliabideen kudeaketaren eta eremu partekatuen erronkei elkarrekin buru egitea.

## 2.4 - 4 ANBIZIOA

Mugaz gaindiko lurraldeko bikaintasunaren eta ospearen sustatzea, Euroeskualde mailan, Estatu mailan eta nazioartean elkarrekin kokatzeko.

## 2.5 - 5 ANBIZIOA

Zeharkako esku hartze ardatzak.

## 4 AMBITIONS DÉCLINÉES EN AXES D'INTERVENTION ET CHAMPS D'ACTIONS

La présente proposition constitue une trame pour l'échange et le dialogue proposé aux collectivités et aux « acteurs de terrain » qui interviennent déjà de longue date dans les axes et champs d'actions proposés. De nombreux projets transfrontaliers sont portés par les différentes collectivités et structures de coopération.

Une première série d'ateliers de concertation avec les acteurs du territoire le 20 septembre 2019 à Bayonne et le 25 septembre 2019 à Saint-Sébastien a permis de recueillir l'expression de 150 acteurs du territoire (élus et techniciens des institutions, associations et entreprises) du territoire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, de la Navarre et d'Euskadi autour de 4 grandes orientations définies par le Comité de Pilotage élargi de la stratégie.

Ces ateliers ont confirmé les ambitions en suscitant des envies de coopération et en proposant des actions à poursuivre ou à explorer. cf. synthèses & actions proposées(1).

---

**Il conviendra collectivement de mieux recenser les projets existants pour les mettre en visibilité et en synergie au service d'une vision transfrontalière stratégique partagée.**

**Au risque d'en oublier, ces projets ne sont volontairement pas énumérés ou peu mentionnés mais ils ont été considérés pour consolider les propositions de champs d'action suivantes.**

---



(1) https://www.communaute-paysbasque.fr/accueil/ateliers-de-la-cooperation-transfrontaliere

## 4 ANBIZIO, ESKU HARTZE ARDATZETAN ETA EKINTZA ARLOTAN GAUZATUAK

Proposamen hau planteatu ardatz eta ekintza-arloetan aspalditik ari diren tokiko eragileei eta elkargoei elkarrizketarako eta harremanetarako proposatzen diegun hezurdura da. Mugaz gaindiko proiektu anitz badira bidean, lankidetza elkargo eta egiturek daramatzatenak.

Lehen kontzertazio tailer batzuk antolatu genituen tokiko eragileekin, 2019ko irailaren 20an Baionan eta 2019ko irailaren 25ean Donostian. Euskal Hirigune Elkargoko, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko 150 eragilek (erakundeetako hautetsi eta teknikariek, elkarteek eta enpresek) estrategiaren gidaritza batzorde zabalduak zehaztu 4 norabide nagusiei buruz egin adierazpenak bildu genituen.

Mugak gure baliabideen eta eremu komunen kudeaketan haustura ekartzen du; alta, batera planteatzea zinez mesedegarria litzateke. Horren adibide nabarmenak baditugu naturan eta ingurumenean, oro har. Arlo horietan, maiz, erronka eta desafio berak dira mugaren bi aldeetan, eta Europako betebehar eta zuzentarau beretan oinarritzen dira (bioaniztasunaren eta ekosistemen babestea, klima aldaketaren kontra jardutea eta gure ekologia aztarnaren egokitzea, murriztea).

Baliabide horiek gure lurraldearen metabolismoaren parte dira (ura eta hezeguneak, energia, elikadura, airearen kalitatea, itsas baliabideak etab.). Beraz, aitzinean ditugun erronkak gure lurralde mailan planteatzen ahal dira, goragoko mailetan finkatu norabide estrategikoekin lotura eginez (bioaniztasunari, energia berriztagarriei, Pirinioetako mendiguneei, ekonomia zirkularrari, hondakinen kudeaketari buruzko Estatuko, eskualdeko eskemak, besteak beste).

Anbizio horrek badu zerikusirik, baita ere, garapen eta antolamendu politikekin, eta mugaz gaindiko lurralde proiektu estrategikoak partekatu behar dira: ingurumen balioa duten eremuen egituratzea, itsasbazterreko konurbazioaren, itsaso aldearen, arro hidrografikoen, mendiaren edo laborantza eta baserri guneen iraunkorki antolatzea.

Anbizio hori oso lotua da ekonomia gaiekin eta gure jendarteek beren gain har ditzaketen eta beren ohituretan sar ditzaketen lurralde eredu bertutetsu edo berritzaileekin. Izenak izen, “trantsizio ekologiko eta energetikoa”-ren edo “ekonomia zirkularra”-ren mugaz gaindiko ingurumen anbizio hori zeharkakoa da, eta hainbat arlotan bikaintasunaren bilatzera bultzatu behar gaitu: ekonomian, berrikuntzan, turismo iraunkorraren sustapenean, elikaduran, bizi eremuaren barneko mugikortasun iraunkortasunean, enplegu eremuaren baitako ekonomia sozial eta solidarioan etab.

*“Mugaz gaindiko elkargoek garapen turistikoaren iraunkortasuna elkarrekin azter dezakete”*

Eragile hitza (Suprefetura)

## 3 ESKU HARTZE ARDATZ AZTERTZEKO:

**1. ardatza:** Mendiaren iraunkorki garatzea

**2. ardatza:** Itsasbazterreko, itsasoko eta arro hidrografikoetako baliabideen kudeatzea eta, aldi berean, itsasbazterreko konurbazioaren iraunkorki antolatzea

**3. ardatza:** Gure baliabideen babestea eta agerian ematea: ekonomia zirkularra, zirkuitu laburrak, energia berriztagarriak, bioaniztasuna...

# AXE 1

## DÉVELOPPER DURABLEMENT LA MONTAGNE

L´espace de la montagne basco-navarraise s’entend comme celui des estives et des cimes les plus sauvages, et inclut aussi les vallées et « pieds de montagne » habitées, leurs gros bourgs ou petites villes assurant les services élémentaires à la population. Il couvre l´espace allant de la Rhune au Port de Larrau. Il correspond ainsi à la définition du massif pyrénéen (http://atlas.ctp.org/site_fr/p1_present_fr.php) et à la zone de contact frontalier la plus étendue. Cette définition n´obère pas un regard plus large sur le contexte régional et urbain dans lequel est placée la montagne basco-navarraise à l´instar de ce que suggère la CTP dans sa Stratégie Pyrénéenne 2018 - 2024.




Cet espace basco-navarrais pris dans son ensemble n’a jamais fait l’objet semble-t-il de projet transfrontalier stratégique et intégré, à l’instar de ce qui a pu être envisagé sur le secteur littoral (Eurocité basque). Or les aspects environnementaux et relatifs à l’équilibre des milieux (gestion de la faune sauvage, définition des principaux corridors écologiques, services écosystémiques), ou certains autres aspects d´ordres socio-économiques (accessibilité, agriculture, tourisme…) nécessitent d’être appréhendés à cette grande échelle.

**S’appuyer sur les acteurs de terrain.**

Sur les secteurs de contact, des espaces institutionnels de coopération existent, organisés (Xareta) ou plus informels (Commission syndicale de Vallées / Juntas de Valle navarraises) mais réguliers notamment pour traiter de sujets agro-pastoraux ou environnementaux (gestion de la grande faune, gestion forestière, fréquentations touristiques). Ces coopérations sont plutôt structurées selon des logiques de vallées, et portent parfois des projets POCTEFA tels que « Kintoan Barna » ou « Irati ». Quant aux pratiques sociaux-économiques et transfrontalières des populations, elles sont peu connues.

**Partager des représentations communes pour dépasser le caractère fragmenté et confidentiel.**

Le caractère fragmenté et confidentiel des relations transfrontalières de cette zone est en outre renforcé par des représentations, notamment cartographiques, qui ne dépassent que rarement la ligne frontalière. D´où la difficulté d´une vision générale et territorialisée de la montagne transfrontalière.

### DES ENJEUX À ENRICHIR :

- **L´écotourisme et le tourisme rural transfrontalier.**
- **La valorisation des services écosystémiques de la montagne.**
- **La montagne habitée et source d’activités.**
- **L´organisation d´une gestion commune, ou du moins concertée, des espaces frontaliers : pâturages, utilisation des estives et patrimoine (cayolars), massifs forestiers, milieux naturels (faune et flore), mais aussi flux touristiques…**

*« Il est nécessaire de travailler sur les métiers de la montagne »*

Parole d’acteur (Marc Cabane - Conseiller départemental délégué aux politiques contractuelles et à la coopération transfrontalière)

### CHAMPS D’ACTIONS STRATÉGIQUES :

- **Valoriser les éléments patrimoniaux montagnards. Par exemple : développement des projets multithématiques autour des chemins de randonnées.**
- **Développer des actions d’écotourisme et de tourisme rural avec une continuité de part et d’autre de la frontière. Valoriser les savoir-faire et les bonnes pratiques des acteurs du tourisme. Conduire une promotion commune.**
- **Organiser une gestion commune des ressources et des espaces frontaliers.**
- **Valoriser les services écosystémiques de la montagne.**
- **Etablir un bilan prospectif de la montagne, versant nord et sud, en vue d’un Parc Naturel Régional (PNR) transfrontalier.**
- **Révéler et valoriser les pratiques transfrontalières de la montagne et accompagner la naissance de nouvelles initiatives transfrontalières.**

# MENDIAREN IRAUNKORKI GARATZEA




Euskal mendien eremuak udako bazkalekuak eta tontor basatiak hartzen ditu barne, baita mendi-zolako ibarrak eta herrixka eta herri ttipiak ere, biztanleei funtsezko zerbitzuak bermatzen dizkietenak. Larrunetik Larraineko mendatera doan eremuari dagokio; hots, Pirinioetako mendigunearen definizioari (http://atlas.ctp.org/site_fr/p1_present_fr.php) eta mugako eremu zabalenari. Definizio horrek ez du euskal mendia dagoen eskualde eta hiri testuinguruaz ikuspegi zabalagorik ematen, 2018-2024 Pirinioetarako estrategian CTPak aholkatzen duenari jarraiki.

Euskal eremu horri, oro har, iduriz, ez zaio sekula mugaz gaindiko proiektu estrategiko eta barneraturik egokitu, itsasbazterreko eremuan planteatutakoaren ildotik (Euskal Eurohiria). Alta, ingurumenari eta ingurumenen orekari dagozkien gaiak (fauna basatiaren kudeaketa, korridore ekologiko nagusien zehaztea, zerbitzu ekosistemikoak) eta beste hainbat gai sozioekonomiko (irisgarritasuna, laborantza, turismoa...) maila handi horretan planteatzea beharrezkoa da.

**Tokiko eragileetan oinarritzea.**

Mugako leku batzuetan, lankidetzarako erakunde eremuak badira, antolatuak (Xareta) edo informalagoak (Ibarretako sindikatu batzordea / Nafarroako ibarretako juntak) baina erregularrak, bereziki laborantza eta artzaintza eta ingurumen gaien jorratzeko (fauna handiaren kudeaketa, oihanen kudeaketa, turismo harrera). Lankidetza horiek ibar logiken arabera egituratuak dira, eta batzuetan, POCTEFA proiektuak daramatzate; adibidez, "Kintoan Barna" edo "Irati". Biztanleen ohitura sozioekonomiko eta mugaz gaindikoez, aldiz, informazio guti dago.

**Irudikapen komunen partekatzea, izaera zatikatuaren eta isilpekoaren gainditzeko.**

Eremu horretako mugaz gaindiko harremanak zatikatuak eta aski ezezagunak dira; gainera, irudikapen kartografikoek, mugaren lerroa gehienetan ez baitute gainditzen, arazoa areagotzen dute. Zaila da, beraz, mugaz gaindiko mendi eremuaren ikuspegi orokor eta lurraldekoaren ukaitea.

## ABERASTU BEHAR DIREN ERRONKAK:

- ★ **Mugaz gaindiko ekoturismoa eta baserrialdeko turismoa,**
- ★ **Mendiko zerbitzu eskosistemikoen agerian ematea,**
- ★ **Mendiaren bizitoki eta jarduera iturri gisa planteatzea**
- ★ **Mugako eremuen kudeaketa komunaren, edo behintzat adostuaren, antolatzea: bazkalekuak, udako bazkalekuak eta ondarea (kaiolarrak), oihan guneak, natur ingurumenak (fauna eta flora), turismo jarioak...**

*"Mendiko lanbideei buruz lan egitea beharrezkoa da"*

Eragile hitza (Marc Cabane - Departamendu kontseilaria, kontratu bidezko politiken eta mugaz gaindiko lankidetzaren ordezkaria)

## EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

- ★ **Mendiko ondare osagaien agerian ematea. Adibidez: mendiko bideetan gai anitzeko proiektuen garatzea.**
- ★ **Ekoturismo eta baserriko turismo ekintzen garatzea, mugaren bi aldeetan jarraikitasuna atxikiz. Turismoaren arloko eragileen jakintzen eta jokabide onen agerian ematea. Promozio komunaren antolatzea.**
- ★ **Mugako baliabide eta eremuen kudeaketa komunaren antolatzea.**
- ★ **Mendiko zerbitzu ekosistemikoen agerian ematea.**
- ★ **Mendiaren prospekzio-bilanaren egitea, iparraldea eta hegoaldea kontuan hartuz, mugaz gaindiko PNR eskualdeko parke nazional baten planteatzeko.**
- ★ **Mendiko mugaz gaindiko jokabideen agerian ematea eta mugaz gaindiko ekimen berriak sortzen laguntzea.**

AXE 2

# GÉRER LES RESSOURCES DES ESPACES LITTORAUX, MARITIMES ET DES BASSINS VERSANTS TOUT EN AMÉNAGEANT DURABLEMENT LA CONURBATION LITTORALE

**Considérer ces espaces dans toutes leurs composantes : littoral, bassins versants, étendue maritime.**

L'espace littoral transfrontalier s'entend comme celui de la conurbation c´est à dire celui formé par le chapelet de noyaux urbains de la façade maritime liés et intégrés par une certaine densité de bâti et par les flux Nord-Sud de l´échelle européenne comme de l´échelle locale - flux qui interagissent dans le fonctionnement quotidien du territoire -.

Le lien du littoral à l´arrière-pays pour la gestion de certaines ressources ne peut être oublié -c´est pourquoi sont intégrés les bassins versants-. De même qu´il faut avoir à l´esprit les ressources de l´étendue maritime vis à vis desquelles le littoral peut-être en prise directe.

L´espace littoral fait l´objet de tensions et de conflits d´intérêts nombreux. Ils sont évoqués dans le projet communautaire (« défi d´une meilleure maîtrise de l´attractivité et de l´accueil ») et impliquent des politiques d´aménagement pour soulager ces tensions.

**Considérer spécifiquement l´espace de contact de la Baie de Txingudi.**

L'espace de contact ou de proximité formé par la baie de Txingudi se distingue par la forte intégration transfrontalière des pratiques des habitants. Les sujets d 'assainissement, d'approvisionnement en eau potable en période de crise, de déplacements et de services de transports urbains, entre autres, ont pu trouver des réponses transfrontalières grâce au volontarisme des trois maires. Mais de très nombreux sujets restent à traiter en matière d'éducation, de suivi et d'accompagnement social de la population, de suivi et d'accompagnement juridique des activités transfrontalières…et plus globalement de partage des politiques municipales.

**Gérer des conflits d´usage et d´intérêt.**

Sur la conurbation littorale notamment, les enjeux portent sur la gestion durable de l'espace au regard de conflits d'usages entre la consommation foncière liée au développement urbain (habitat, économie, équipements, services commerces, infrastructures), et la préservation, la mise en valeur des espaces naturels agricoles et forestiers mais aussi par rapport aux zones de pêche et pratiques nautiques, etc.

**Rapprocher les acteurs institutionnels autour de sujets environnementaux et d'aménagement sur la conurbation transfrontalière :**

Les actions transfrontalières conduites à l'échelle de la conurbation n'ont pas été à la hauteur des perspectives ouvertes à la fin des années 90 autour du projet d´Eurocité Basque.

Malgré tout, un certain nombre d'initiatives ont vu le jour, portées par les collectivités locales et sur des sujets environnementaux qui s´ancrent dans le territoire : préservation et valorisation des corridors écologiques de l'Eurocité Basque (Red-Vert) gestion des risques d'inondations (H2O Gurea), gestion des risques côtiers (MAREA), mobilité (E-mobask), sécurité civile (ALERT).

Hormis la richesse des travaux, ces projets ont aussi permis d'identifier les acteurs institutionnels concernés et de produire l'interconnaissance et les acculturations indispensables à la coopération. Les acteurs espèrent ainsi poursuivre les chantiers initiés.

## CHAMPS D'ACTIONS STRATÉGIQUES :

- ★ **Mettre en place un outil d'information et de communication commun sur la qualité des eaux de baignade notamment auprès des professionnels du tourisme.**
- ★ **Renforcer la mise en réseau des espaces naturels protégés littoraux (terrestres et marins).**
- ★ **Développer une filière transfrontalière de pêche responsable sur l'ensemble du Golfe de Biscaye.**
- ★ **Développer une filière de collecte et de valorisation des déchets marins plastiques.**
- ★ **Mieux connaitre les effets du changement climatique sur le littoral et les bassins versants transfrontaliers.**
- ★ **Créer un observatoire côtier transfrontalier.**
- ★ **Créer un label de qualité transfrontalier de l'aménagement vertueux du territoire.**



## ITSASBAZTERREKO, ITSASOKO ETA ARRO HIDROGRAFIKOETAKO BALIABIDEEN KUDEATZEA ETA, ALDI BEREAN, ITSASBAZTERREKO KONURBAZIOAREN IRAUNKORKI ANTOLATZEA

**Itsasbazterra, arro hidrografikoak eta itsas eremua beren osagai guziekin kontuan hartzea.**

Mugaz gaindiko itsasbazterreko eremua konurbazioari dagokio; hau da, itsasaldeko hiri muin anitzek osatua da, eta muin horien artean eraikin dentsitate aski handiak daude, baita iparraldetik hegoalderako jarioak ere (bai Europako mailakoak, bai tokikoak). Jario horiek, gainera, lurraldearen eguneroko funtzionamenduan elkarrekintzan daude.

Itsasbazterraren eta barnealdearen arteko lotura beharrezkoa da, baliabide batzuen kudeatzeko; horretarako barne hartzen dira arro hidrografikoak. Halaber, itsasoko baliabideak ere kontuan hartu behar dira, itsasbazterrak zuzeneko lotura izan baitezake haiekin.

Itsasbazterrean, tentsio eta interes-aurkakotasun anitz daude. Elkargoaren proiektuan aipatuak dira ("erakargarritasuna eta harrera hobeki kontrolatzearen erronka") eta antolamendu politikak behar dituzte, tentsio horien apaltzeko.

**Txingudiko mugako eremuaren bereziki kontuan hartzea.**

Txingudiko badiak osatzen duen harreman edo hurbiltasun eremuaren berezitasuna da biztanleen ohituretan mugaz gaindikotasuna azkarki sartua dela. Saneamenduan, krisi garaiko ur edangarri horniduran, mugikortasunean eta hiri garraio zerbitzuetan eta beste hainbat gaitan, mugaz gaindiko aterabideak atzeman dituzte, hiru auzapezen nahikeriari esker. Baina gai anitz eta anitz jorratzekoak dira; besteak beste, hezkuntza, biztanleen laguntza eta segimendu sozialak, mugaz gaindiko jardueren segimendua eta laguntza juridikoak... eta, oro har, herriko politiken partekatzea.

**Erabilpen eta interes aurkakotasunen kudeatzea.**

Itsasbazterreko konurbazioan bereziki, erronkak eremuaren kudeaketa iraunkorrari buruzkoak dira, erabilpen aurkakotasunak baitira: batetik, hiri garapenaren ondoriozko lurren kontsumoa (bizitokia, ekonomia, ekipamenduak, zerbitzuak, saltegiak, azpiegiturak), eta bestetik, natur, laborantza eta oihan eremu naturalen babesa eta agerian ezartzea. Aurkakotasunak badira, halaber, arrantza eremuen eta itsas jarduera nautikoen artean, besteak beste.

**Mugaz gaindiko konurbazioko erakundeetako eragileen biltzea ingurumen eta antolamendu gaien inguruan:**

Konurbazio mailan izan diren mugaz gaindiko ekintzak ez dira Euskal Eurohiriaren proiektuaren inguruan 90eko hamarkadan zabaldu ziren itxaropenen araberakoak izan.

Hala ere, hainbat ekimen sortu dira, tokiko elkargoek eramanak, lurraldeari dagozkion ingurumen-gaietan: Euskal Eurohiriko korridore ekologikoen babestea eta agerian ematea (Red-Vert), uholde arriskuen kudeaketa (H2O gurea), kostaldeko arriskuen kudeaketa (Marea), mugikortasuna (E-mobask), segurtasun zibila (Alert).

Lanak, aberatsak izateaz gain, baliagarriak izan dira erakunde eragileen identifikatzeko eta lankidetzarako ezinbestekoak diren elkar ezagutzaren eta akulturazioaren sortzeko. Beraz, eragileek abiatu lanak segitzea espero dute.

### EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

- ★ Bainatzeko uraren kalitateari buruzko informazio eta komunikazio tresna komunaren plantan ematea, bereziki turismoaren arloko profesionalentzat.
- ★ Itsasbazterreko lurreko eta itsasoko natur eremu babestuen hobeki saretzea
- ★ Bizkaiko Golko osoan arrantza arduratsurako mugaz gaindiko sail baten garatzea
- ★ Itsasoko plastikozko hondakinen bilketa eta balorizazio sail baten garatzea
- ★ Klima aldaketak itsasbazterrean eta mugaz gaindiko arro hidrografikoetan dituen eraginen hobeki ezagutzea
- ★ Mugaz gaindiko kostaldeko behatoki baten sortzea
- ★ Lurraldearen antolamendu bertutetsuaren mugaz gaindiko kalitate zigilu baten sortzea



AXE 3

# PRÉSERVER ET VALORISER NOS RESSOURCES : ÉCONOMIE CIRCULAIRE, CIRCUITS COURTS, ÉNERGIES RENOUVELABLES, BIODIVERSITÉ…

Au-delà des espaces de montagne et du littoral, la question de la préservation des ressources concerne aussi un territoire plus large (niveau régional Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Navarre, voire au-delà). Dans tous les cas, la question de la localisation, essentielle, implique aussi indirectement celle de l´aménagement du territoire (cf. métabolisme territorial).

L´impératif de préservation des ressources met en jeu de nouveaux modèles tels que l´économie circulaire (cf. boucles de l'économie circulaire, Fondation Ellen MacArthur). Le code de l´environnement en France (L. 110-1-1) incite les acteurs économiques à développer l'économie circulaire, et pour ce faire, à **« coopérer à l´échelle territoriale la plus pertinente. » La Communauté de Travail des Pyrénées (CTP)** dans sa stratégie pyrénéenne désigne aussi, explicitement, ce champ d´intervention.

Les complémentarités, les masses critiques et le potentiel d'innovation de l´espace transfrontalier sont des facteurs propices au développement de ce modèle sur nos territoires (cf. « Enjeux de la collaboration entrepreneuriale transfrontalière. Expérimentation au sein de l´Eurorégion NAEN », 2019). Les acteurs institutionnels de terrain engagent déjà des initiatives dans ce sens (CCI-Pays Basque, ville de Saint-Sébastien.)

La préservation des ressources passe aussi par des approches en circuits-courts. Sur la Communauté d'Agglomération Pays Basque, des efforts importants sont portés sur les questions alimentaires et d´agriculture de proximité ou de monnaie locale par exemple avec une forte implication de la population. Les circuits courts gagneront à être envisagés dans une dimension transfrontalière pour les mêmes raisons que cités précédemment (complémentarités, masse critique, potentiel d´innovation).

Il en est même pour le développement des énergies renouvelables (biomasse, énergies marines…), le transfert de technologies, le partage des ressources et des systèmes d´alimentation, la promotion et la mise en place de nouveaux usages et de nouvelles pratiques.

## CHAMPS D'ACTIONS STRATÉGIQUES :

- **Développer les circuits courts alimentaires à l'échelle transfrontalière.**
- **Elaborer et mettre en œuvre une stratégie transfrontalière sur la filière des déchets.**
- **Se connaître : réseau d´acteurs, rencontres transfrontalières pour créer des synergies de savoir-faire et de valorisation des ressources, partager des expériences tout en poursuivant les initiatives engagées.**
- **Approfondir les collaborations transfrontalières en faveur du développement des énergies renouvelables, en suivant les initiatives engagées sur les Energies Marines Renouvelables, avec l´implication de l´Eurorégion. Cf. filières d'excellence - Ambition 4.**

# GURE BALIABIDEEN BABESTEA ETA AGERIAN EMATEA: EKONOMIA ZIRKULARRA, ZIRKUITU LABURRAK, ENERGIA BERRIZTAGARRIAK, BIOANIZTASUNA...

Mendi eremuetatik eta itsasbazterretik harago, baliabideen babesaren gaia lurralde zabalagoari ere badagokio (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa eskualdeari, baita, beharbada, eremu are zabalagoari ere). Dena den, lokalizazioaren funtsezko gaiak, zeharka, lurralde antolamendua ere barne hartzen du (ikus lurralde metabolismoa).

Baliabideen babestea beharrezkoa denez, eredu berriak sortzen dira; adibidez, ekonomia zirkularra (ikus ekonomia zirkularraren zikloak, Ellen MacArthur fundazioa). Frantziako ingurumenaren kodeak (L. 110-1-1) eragile ekonomikoak ekonomia zirkularra garatzera bultzatzen ditu, eta horretarako, **“lurralde maila egokienean lankidetzan aritzera”. CTP Pirinioetako Lan Elkarteak ere**, Pirinioetarako estrategian, esku hartze arlo hori argiki izendatu du.

Mugaz gaindiko eremuko osagarritasunak, masa kritikoak eta berrikuntza ahalmenak gure lurraldeetan modelo hori garatzearen alde egiten dute (ikus “Mugaz gaindiko enpresa lankidetzaren erronkak. ABEN Euroeskualdeko esperimentazioa”, 2019). Tokiko erakunde eragileak ekimenak bultzatzen ari dira zentzu horretan (Euskal Herriko MIG, Donostiako hiria).

Baliabideen babesteko, bestalde, zirkuitu laburren planteatzea beharrezkoa da. Euskal Hirigune Elkargoan, indar handiak egiten ari dira elikaduraren eta hurbileko laborantzaren gaietan, baita tokiko monetan ere, adibidez, eta biztanleak anitz inplikatzen dira. Zirkuitu laburrak mugaz gaindiko mailan planteatzea komeni izanen da, gorago aipatu arrazoi berengatik (osagarritasunak, masa kritikoa, berrikuntza ahalmena).

Halaber, energia berriztagarrien garatzeko (biomasa, itsasoko energiak...), teknologien transferitzeko, baliabideen eta elikadura sistemen partekatzeko, erabilera eta ohitura berrien sustatzeko eta plantan emateko, mugaz gaindikotasuna kontuan hartzea komeni da.

## EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

- ★ **Elikadurako zirkuitu laburren garatzea mugaz gaindiko mailan**
- ★ **Mugaz gaindiko estrategia baten moldatzea eta gauzatzea hondakinei buruz**
- ★ **Elkarren ezagutzea: eragile sarea, mugaz gaindiko topaketak jakintzei eta baliabideei balio egiagoren emateko eta sinergien sortzeko, esperientzien partekatzea eta abian diren ekimenen segitzea.**
- ★ **Mugaz gaindiko lankidetzen sakontzea energia berriztagarrien garapenaren mesedetan, Itsasoko Energia Berriztagarriei buruz abiatu ekimenak segituz, Euroeskualdea inplikatuz. Ikus. Bikaintasun sailak - 4. anbizioa.**



# 2.4 AMBITION 4 : PROMOUVOIR L'EXCELLENCE ET LE RAYONNEMENT TERRITORIAL TRANSFRONTALIER POUR NOUS POSITIONNER ENSEMBLE AU NIVEAU EURO-RÉGIONAL, NATIONAL ET INTERNATIONAL

Que ce soit en termes de développement économique, de rayonnement urbain ou de tourisme, les enjeux de compétitivité, de lisibilité, d'attractivité mais aussi de qualité, se posent à l'échelle internationale dans une logique d'excellence.

Nos territoires disposent d'atouts, qui, par la recherche de synergies (complémentarités, mutualisation), nous permettent ensemble de nous positionner à cette échelle.

Notre rayonnement et notre attractivité doivent se construire en s'appuyant sur nos spécificités territoriales physiques et paysagères (mer, littoral, montagne, agriculture, cadre de vie), culturelles (langue, patrimoine, savoir-faire), mais aussi économiques (compétences, filières...).

Si ces spécificités et ces richesses sont des leviers pour un rayonnement partagé, la préservation de nos territoires implique la promotion d'un développement responsable et la recherche d'excellence en la matière (mobilité, ressources, tourisme vertueux, politique agro-environnementale, etc.).

**Une ambition qui vise à gagner ensemble en notoriété et en compétitivité considérant nos atouts : fonctions supérieures, innovation, recherche, enseignement, spécialisation économique, environnement, promotion territoriale, tourisme, infrastructures...**

*« Tout ce que l'on pense en termes de concurrence peut aussi être pensé en termes de synergie »*

Parole d´acteur (Michel Casteigts, professeur des Universités et chercheur)




**Un bassin transfrontalier majeur dans le Sud de l'Euro région qui représente la moitié de la population de la Région Nouvelle Aquitaine**

## 3 AXES D'INTERVENTION À EXPLORER :

**Axe 1 :** Valoriser et promouvoir nos atouts communs en matière de savoir-faire et de patrimoines à l'international.

**Axe 2 :** Construire des synergies transfrontalières en matière de recherche, d'innovation, d'enseignement supérieur et de filières économiques d'excellence.

**Axe 3 :** Optimiser et développer ensemble des équipements structurants et des infrastructures d'envergure qui participent à notre rayonnement et à l'offre de fonctions supérieures. Une métropole Euro-régionale ?

## 2.4 4. ANBIZIOA: MUGAZ GAINDIKO LURRALDEKO BIKAINTASUNAREN ETA OSPEAREN SUSTATZEA, EUROESKUALDE MAILAN, ESTATU MAILAN ETA NAZIOARTEAN ELKARREKIN KOKATZEKO




Garapen ekonomikoan, hirien ospean eta turismoan, lehiakortasun, irakurgarritasun, erakargarritasun eta kalitate erronkak nazioarteko mailakoak dira, bikaintasuna baldin bada xedea.

Gure lurraldeek dituzten abantailei esker, sinergiak bilatuz (osagarritasunak, bateratzeak), elkarrekin, maila horretan kokatzeko parada dugu.

Gure ospearen eta erakargarritasunaren eraikitzeko, gure lurraldearen berezitasun fisiko eta geografikoetan (itsasoa, itsasbazterra, mendia, laborantza, bizi ingurumena), kulturaletan (hizkuntza, ondarea, jakintzak), eta ekonomikoetan (gaitasunak, jarduera-sailak...) oinarritu behar dugu.

Berezitasun eta aberastasun horiek ospe partekatuaren lortzeko baliagarriak dira, baina gure lurraldeen babesteko, garapen arduratsua sustatu behar da eta arlo horretan bikaintasuna bilatu behar da (mugikortasuna, baliabideak, turismo bertutetsua, laborantza eta ingurumen politika etab.).

**Anbizio horren xedea denok elkarrekin ospe eta lehiakortasun gehiagoren lortzea da, gure abantailak kontuan hartuz: goi mailako funtzioak, berrikuntza, ikerketa, irakaskuntza, espezializazio ekonomikoa, ingurumena, lurralde sustapena, turismoa, azpiegiturak...**

**Euroeskualdearen hegoaldean Mugaz gaindiko funtsezko eremu bat dago, Akitania Berriaren biztanleen erdia biltzen duena**

*“Lehiakortasunaren ikuspuntutik ikusten dugun guzia sinergia gisa ere pentsa daiteke”*

Eragile hitza (Michel Casteigts, unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria)

## 3 ESKU HARTZE ARDATZ AZTERTZEKO:

**1. ardatza:** Jakintzen eta ondareen arloan ditugun abantaila komunen agerian ematea eta nazioartean sustatzea

**2. ardatza:** Mugaz gaindiko sinergien eraikitzea ikerketaren, berrikuntzaren, goi mailako irakaskuntzaren eta ekonomia-sail bikainen arloetan

**3. ardatza:** Ekipamendu egituratzaileen eta neurri handiko azpiegituren elkarrekin garatzea eta optimizatzea, gure ospearen eta goi-mailako funtzio eskaintzaren mesedetan. Euroeskualdeko metropolia?

# AXE 1

## VALORISER ET PROMOUVOIR NOS ATOUTS COMMUNS EN MATIÈRE DE SAVOIR-FAIRE ET DE PATRIMOINES À L'INTERNATIONAL

Cet axe de collaboration doit permettre de gagner en notoriété et en attractivité partagées. L'objectif consiste à travailler à l'excellence de nos atouts et continuer à révéler les éléments qui forgent nos identités communes : cultures montagnardes, maritimes, relations et échanges de nos cités, traditions de villégiatures, savoir-faire culinaire, originalité des produits de l´élevage et de l´agriculture, patrimoine naturel, etc. La frontière fait partie de notre identité. Elle est un outil que nous pouvons utiliser.

Il s'agit de construire les complémentarités nécessaires pour une promotion partagée de nos territoires tout en les préservant et en véhiculer une image de territoire transfrontalier d'exception (image de marque, labels de qualité...).
Pour autant il est nécessaire que les habitants et les acteurs des territoires se retrouvent dans les éléments d'excellence promus et affichés au reste du monde afin qu'ils en soient les ambassadeurs.

**Cet axe s'inscrit dans les défis exprimés du projet communautaire aussi bien en termes d'alliances territoriales que de préservation des biens communs ou d'innovation au service de la mutation des moteurs économiques (agro-alimentaire, croissance bleue, etc.).**

### CHAMPS D'ACTIONS STRATÉGIQUES :

En complément ou en prolongement d'interventions engagées (Chemins de Saint-Jacques, « Ambition Pyrénées », Parc naturel régional...), plusieurs pistes à explorer sont proposées :

- ★ **Travailler sur les partenariats en s'appuyant sur un écosystème d'acteurs variés compétents pour passer de la notion de qualité à celle d'excellence : « Territoires transfrontaliers, territoires d'excellence ».**
- ★ **Identifier et définir des outils communs de promotion.**

## JAKINTZEN ETA ONDAREEN ARLOAN DITUGUN ABANTAILA KOMUNEN AGERIAN EMATEA ETA NAZIOARTEAN SUSTATZEA

Elkarlan ardatz horrek ospe eta erakargarritasun partekatu gehiago eman behar digu. Helburua da gure abantailen bikaintasunaren lantzea eta gure nortasun komunak moldatzen dituzten osagaiak identifikatzen segitzea: mendiko kultura, itsasokoa, hirien arteko harremanak eta trukeak, opor ohiturak, sukaldaritza, hazkuntzako eta laborantzako produktuen originaltasuna, natur ondarea etab. Muga gure nortasunaren parte da. Balia dezakegun tresna da.

Beharrezkoak diren osagarritasunak eraiki behar dira, gure lurraldeak batera sustatzeko, eta, aldi berean, babesteko, eta mugaz gaindiko lurraldearen paregabetasun irudiaren garraiatzeko (marka irudia, kalitate zigiluak...).
Hala ere, lurraldeetako biztanle eta eragileek mundu zabalera igorri bikaintasunaren osagaiak berenak direla sentitu behar dute, horien enbaxadoreak izan daitezen.

**Ardatz horrek elkargoaren proiektuan adierazi erronkekin bat egiten du, bai lurraldeen arteko aliantzei dagokienez, bai ondasun komunen babesari dagokionez, baita akuilu ekonomikoen aldaketaren mesederako berrikuntzari dagokionez ere (laborantza eta elikadura, hazkuntza urdina etab.).**

### EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

Abian diren esku hartzeen segitzeko edo osatzeko (Donejakueko bideak, “Ambition Pyrénées”, Eskualdeko parke naturala...), hainbat pista aztertzea proposatzen dugu:

- ★ **Partaidetza batzuen lantzea, eragile anitz eta eskudunen ekosisteman oinarrituz, kalitate noziotik bikaintasunera iragateko: “Mugaz gaindiko lurraldeak, bikaintasun lurraldeak”.**
- ★ **Promozio tresna komunen identifikatzea eta zehaztea**



# AXE 2

## CONSTRUIRE DES SYNERGIES TRANSFRONTALIÈRES EN MATIÈRE DE RECHERCHE, INNOVATION, ENSEIGNEMENT SUPÉRIEUR ET FILIÈRES ÉCONOMIQUES D'EXCELLENCE

De l'enseignement supérieur à la production en passant par la recherche et l'innovation, la coopération transfrontalière est une opportunité en termes de moyens « additionnels » : humains, financiers, technologiques, compétences. Elle offre par exemple des possibilités supplémentaires pour les entreprises de tester en fabrication leurs produits de part et d'autre de la frontière.

Il s'agit de gagner ensemble en excellence, en performance et en compétitivité en aidant nos entreprises à se positionner sur des marchés internationaux par l'innovation notamment dans des domaines ciblés. Il convient de rechercher les complémentarités possibles et dépasser les différences de culture existantes en matière économique (logique de marchés, cluster, filières…).

Des actions sont d'ores et déjà engagées avec des résultats en matière d'innovation, de recherche, de coopération d'entreprises et universitaire à l'instar de ce qui est fait avec l'Estia, le GIS Littoral Basque, sur la croissance bleue, l'alimentation durable, l'inter clustering (Compétitiv'Eko)… Pourtant, la coopération transfrontalière universitaire existante ne se traduit pas forcément sur le territoire et les freins juridico-institutionnels demeurent.

**Cet axe d'intervention vise à promouvoir un développement économique et une attractivité renforcés par sa dimension transfrontalière en trouvant les synergies entre les orientations ciblées dans les différentes stratégies notamment du GECT Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Navarre (champs de spécialisation intelligente), du projet communautaire et du schéma de développement économique de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Cette recherche de synergie impose de travailler sur l'interconnaissance des acteurs et le dialogue entre les structures et collectivités concernées par le développement économique.**

*« Il existe une différence de culture en matière économique entre les entreprises du Nord et du Sud en matière de conception du développement économique »*

Parole d'acteur (Bihartean)

### CHAMPS D'ACTIONS STRATÉGIQUES :

- **Poursuivre/intensifier les coopérations sur les filières d'excellence du territoire ciblées, construire un réseau transfrontalier des lieux d'innovation (technopoles…).**
- **Soutenir les initiatives de partenariat transfrontalier par une ingénierie dédiée.**
- **Inciter à la mobilité transfrontalière des enseignants, chercheurs et étudiants.**

# MUGAZ GAINDIKO SINERGIEN ERAIKITZEA IKERKETAREN, BERRIKUNTZAREN, GOI MAILAKO IRAKASKUNTZAREN ETA EKONOMIA-SAIL BIKAINEN ARLOETAN

Goi-mailako irakaskuntzatik ekoizpenera, ikerketatik berrikuntzara, mugaz gaindiko lankidetza baliabide "gehigarri" gehiagoren lortzeko aukera da; hots, giza, diru, teknologia eta gaitasun baliabideen emendatzeko. Adibidez, enpresei beren produktuen fabrikazioa mugaren bi aldeetan probatzeko parada gehiago ematen die.

Helburua da denek elkarrekin bikaintasun, emaitza eta lehiakortasun gehiagoren lortzea, gure enpresak nazioarteko merkatuetan kokatzen lagunduz, berrikuntzari esker, bereziki arlo jakin batzuetan. Balizko osagarritasunak bilatu behar dira, eta arlo ekonomikoan dauden kultur ezberdintasunak gainditu (merkatu logikak, lusterrak, ekonomia-sailak...).

Ekintza batzuk abiatuak dira, eta emaitzak ekarri dituzte berrikuntzaren, ikerketaren eta enpresen eta unibertsitateen lankidetzaren arloetan. Adibidez, Estiaren edo Littoral Basque zientzia intereseko elkartearen lanak hazkuntza urdinaz, elikadura iraunkorraz, inter clustering-az (Compétitiv'Eko)... Alta, egungo unibertsitateen arteko mugaz gaindiko lankidetza lurraldean ez da beti ageri, eta oztopo juridiko eta instituzionalak hor daude.

**Esku hartze ardatz horren helburua da garapen ekonomikoa eta erakargarritasuna mugaz gaindikotasunaren balio erantsiari esker sustatzea, estrategia ezberdinetan identifikatu norabideen artean sinergiak aurkituz; bereziki Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa LLETaren (espezializazio inteligente arloak), elkargoaren proiektuaren eta EHEren garapen ekonomikorako eskemaren artean. Sinergia horien atzemateko, eragileen elkar ezagutza hobetu behar da eta garapen ekonomikoan eraginik duten egitura eta elkargoen artean elkarrizketa azkartu behar da.**

---

*"Ekonomiaren arloan, kultur ezberdintasun bat bada Iparraldeko eta Hegoaldeko enpresen artean, garapen ekonomikoaren ikusmoldeari dagokionez"*

Eragile hitza (Bihartean)

---

## EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

- ★ **Lurraldean identifikatu bikaintasun-sailetan lankidetzen segitzea/indartzea, berrikuntza-guneen mugaz gaindiko sare baten eraikitzea (teknopoloak...)**
- ★ **Mugaz gaindiko partaidetza ekimenen sostengatzea, horretarako pentsatu ingeniaritzari esker**
- ★ **Irakasleen, ikerlarien eta ikasleen mugaz gaindiko mugikortasunaren sustatzea**



# OPTIMISER ET DÉVELOPPER ENSEMBLE DES ÉQUIPEMENTS STRUCTURANTS ET DES INFRASTRUCTURES D'ENVERGURE QUI PARTICIPENT À NOTRE RAYONNEMENT ET À L'OFFRE DE FONCTIONS SUPÉRIEURES

AXE 3

Les performances de nos réseaux de communication et d'échanges sont des conditions nécessaires pour le rayonnement et le développement de nos territoires. Dans un contexte de mondialisation, de contraintes économiques et de préservation de l'environnement, la recherche d'efficience et d'économie d'échelle par rapport à nos infrastructures s'impose à nous comme une nécessité. Cet axe de collaboration vise à conforter l'excellence et le rayonnement territorial transfrontalier par l'organisation des complémentarités entre nos infrastructures pour mieux nous positionner ensemble.

La compétition territoriale régionale, nationale et européenne se situe également dans les niveaux d'offre de services métropolitains ou « fonctions supérieures » que les territoires sont capables de promouvoir pour la qualité de vie des habitants et le développement économique. Ce niveau d'offre participe à la modernité de l'image, au rayonnement et à l'attractivité des territoires y compris pour les entrepreneurs et investisseurs.

**Il convient ainsi de définir les synergies possibles entre nos aéroports, plateformes logistiques, ports industriels, ports de pêche et de plaisance ou nos réseaux ferroviaires... Il s'agit aussi de travailler sur les synergies possibles entre nos grands équipements et services spécialisés existants ou à créer pour une offre transfrontalière métropolitaine lisible (masse critique et économie d'échelle) : sport, culture, tourisme, affaires, congrès, santé, finances, etc.**

## CHAMPS D'ACTIONS STRATÉGIQUES :

### Dans le champ des infrastructures de communication

★ **Organiser les synergies entre les aéroports du territoire.**

- Organiser une meilleure accessibilité de nos équipements
- Interconnecter les réseaux / plateformes d'échanges multimodales et relier le Pays Basque intérieur par voie ferrée et par la Vélodyssée.

★ **Travailler ensemble au report modal du transport de marchandises de la route vers les infrastructures ferroviaires et portuaires et s'inscrire sur les schémas européens.**

★ **Étudier les possibilités de complémentarités/spécialisation des ports.**

★ **Intégrer un réseau de communication numérique très haut débit sur la conurbation littorale.**

### Dans le champ des équipements et des services métropolitains

★ **Identifier les potentiels de mise en synergie des équipements et services métropolitains (sport, culture, santé, université, etc.).**

★ **Soutenir les équipements / services transfrontaliers d'envergure.**

## EKIPAMENDU EGITURATZAILEEN ETA NEURRI HANDIKO AZPIEGITUREN ELKARREKIN GARATZEA ETA OPTIMIZATZEA, GURE OSPEAREN ETA GOI-MAILAKO FUNTZIO ESKAINTZAREN MESEDETAN.

Gure komunikazio eta harreman sareen emaitzak onak izan behar dira, gure lurraldeak gara daitezen eta ospea lor dezaten. Globalizazio, hertsapen ekonomiko eta ingurumenaren babes testuinguru honetan, gure azpiegituren eraginkortasunaren eta ekonomiaren bilatzea ezinbestekoa da. Lankidetza ardatz horren helburua mugaz gaindiko lurraldearen bikaintasunaren eta ospearen baieztatzea da, gure azpiegituren artean osagarritasunak antolatuz, elkarrekin hobeto kokatzeko.

Eskualdeko, estatuetako eta Europako lurraldeen arteko lehian, biztanleen bizi kalitatearen eta garapen ekonomikoaren sustatzeko gai diren lurraldeen metropoli-zerbitzuen edo "goi-mailako funtzioen" arloko eskaintza mailak badu eraginik. Eskaintza maila horrek lurraldeen irudiaren modernotasuna, ospea eta erakargarritasuna elikatzen ditu, enpresarien eta inbertitzaileen erakartzeko, besteak beste.

**Beraz, gure aireportuen, plataforma logistikoen, portu industrialen, arrantza eta turismo portuen eta trenbide sareen artean sinergia posibleak definitu behar dira. Gure ekipamendu handien eta zerbitzu berezituen artean izan daitezkeen sinergiak ere landu behar dira, edo mugaz gaindiko metropoli-eskaintza irakurgarria sortu (masa kritikoa eta eskalako ekonomia): kirola, kultura, turismoa, negozioak, kongresuak, osasuna, finantzak etab.**

### EKINTZA ARLO ESTRATEGIKOAK:

### Komunikazio azpiegituren arloan

★ **Lurraldeko aireportuen arteko sinergien antolatzea**

- Ekipamenduetarako irisgarritasun hobearen antolatzea
- Truke multimodaleko sare/plataformen interkonektatzea eta Euskal Herriko barnealdearekiko loturen eraikitzea, trenbidez eta Vélodyssée bidearen bitartez

★ **Merkantzien garraioa bidetik trenbidera eta portuetara transferitzeko elkarrekin lan egitea eta Europako eskemetan sartzea**

★ **Portuen arteko osagarritasun/espezializazio aukeren aztertzea**

★ **Oso abiadura handiko komunikazio sare numerikoan sartzea itsasbazterreko konurbazioan**

### Metropoli-ekipamendu eta zerbitzuen arloan

★ **Metropoli-ekipamendu eta zerbitzuen sinergia ahalmenen identifikatzea (kirola, kultura, osasuna, unibertsitatea etab).**

★ **Mugaz gaindiko ekipamendu/zerbitzu garrantzitsuen sostengatzea**

# 2.5 AMBITION 5: DES AXES D'INTERVENTION TRANSVERSAUX ET DES PRÉALABLES À LA DÉFINITION DE PROJETS

**Quelles que soient les orientations et les différents axes de travail correspondants, plusieurs champs d'actions stratégiques s'imposent de toute évidence et sont parfois des impératifs et des préalables à l'action...**

**• Agir sur tous les leviers et domaines permettant de développer le multilinguisme dans l'enseignement, l'éducation professionnelle, la vie du quotidien**

Quel que soit le domaine, la possibilité de développer les coopérations implique de se comprendre. Il convient de poursuivre et d'amplifier les actions entreprises (Office Public de la Langue Basque, etc.) et d'inciter au trilinguisme au-delà de l'apprentissage de l'anglais.

**• Intégrer la transition écologique et énergétique dans tous les projets**

Au-delà des ambitions, la nécessité de changement dans nos modèles implique d'intégrer les enjeux liés à la transition écologique et énergétique ainsi que plus globalement le développement durable en amont du choix de tous les projets et dans toutes les actions.

**• Travailler à des politiques d'aménagement concertées**

Organisation de la mobilité transfrontalière et des infrastructures de transport ou de communication - Gestion des espaces communs du littoral et de la montagne - Développement de la conurbation urbaine, etc. Tous ces domaines d'intervention invitent à une articulation de nos documents de planification, d'aménagement du territoire voire de programmation en lien avec les orientations inscrites dans les directives européennes qui s'imposent à nous (Directrices de Ordenación Territorial/ Schéma Régional d'Aménagement, de Développement Durable, et d'Egalité des Territoires SRADDET, Parc Naturel Régional, Schéma de Cohérence Territorial/Planes Territoriales Parciales, Plan Locaux d'Urbanisme Intercommunaux, Planes Territoriales Sectoriales, Plan de Déplacement Urbain, Programme Local de l'Habitat...).

**• Sensibiliser les populations au transfrontalier et travailler à l'interconnaissance des acteurs**

Le programme européen Interreg A pose comme objectif de « réduire l'effet frontière et faire en sorte que les citoyens perçoivent la zone transfrontalière comme un espace unique ». Les différences de cultures et de perceptions réciproques imposent d'agir sur la sensibilisation des populations et sur les représentations collectives pour la prise de conscience de la réalité territoriale transfrontalière.

**• Agir en direction de la jeunesse**

Les jeunes sont notre avenir et les acteurs des pratiques transfrontalières de demain. Il s'agit de leur donner « envie de transfrontalier » et de leur en faciliter l'accès. Un plan jeunesse transfrontalier mériterait d'être mis en place couvrant tous les domaines (éducation, enseignement supérieur, langue, transports, logements, etc.).

## 2.5 5. ANBIZIOA: ZEHARKAKO ESKU HARTZE ARDATZAK ETA PROIEKTUEN DEFINITZEKO AITZINETIKAKO BALDINTZAK

**Norabide guzietan eta dagozkien lan ardatz guzietan, ekintza arlo estrategiko batzuk nabarmentzen dira, eta batzuetan, ekintzetan hasi aitzinetikako ezinbesteko baldintzak dira...**

- **Irakaskuntzan, hezkuntza profesionalean, eguneroko bizian eleaniztasunaren garatzea ahalbidetzen duten bide eta arlo guzietan ekitea.**

  Arlo guzietan, lankidetzen garatzeko, elkar ulertu behar da. Abiatuak diren ekintzen (Euskararen Erakunde Publikoa etab.) segitzea eta indartzea eta ingelesa ikasteaz gain hirueletasunaren sustatzea komeni da.

- **Proiektu guzietan trantsizio ekologiko eta energetikoaren barneratzea**

  Anbizioetatik harago, gure ereduen aldatzeko, trantsizio ekologiko eta energetikoaren erronkak barneratu behar dira, eta, oro har, garapen iraunkorra kontuan hartu behar da, proiektu oro hautatu eta ekintza oro abiatu aitzin.

- **Antolamendu politika adostuen lantzea**

  Mugaz gaindiko mugikortasunaren eta garraio eta komunikazio azpiegituren antolaketa, Itsasbazterreko eta mendiko eremu komunen kudeaketa, Hiri konurbazioaren garapena eta beste hainbat arlotan, gure plangintza, lurralde antolamendu eta programazio dokumentuak dagozkigun Europako zuzentarauetan finkatu norabideekin lotu behar dira (lurralde antolamendurako zuzentarauak / SRADDET eskualdeko antolamendu, garapen iraunkor eta lurraldeen berdintasun eskema, eskualdeko parke naturala, lurraldeko koherentziarako eskema/lurralde plan partzialak, herri arteko tokiko hirigintza planak, lurralde plan sektorialak, hiri mugikortasun plana, habitataren tokiko programa...).

- **Biztanleak mugaz gaindikotasunera sentsibilizatzea eta eragileen elkar ezagutzaren lantzea**

  Interreg A Europako programaren helburuen artean, hau agertzen da: “muga-eraginen murriztea eta biztanleen laguntzea mugaz gaindiko eremua gune bakar gisa ikusten”. Kultur eta elkarren pertzepzio ezberdintasunak direla eta, biztanleak sentsibilizatu behar dira eta taldeko irudikapenak landu behar dira, mugaz gaindiko lurralde egoera kontzientzietan sar dadin.

- **Gazteendako jardutea**

  Gazteak gure geroa dira, haiek izanen baitira etorkizuneko mugaz gaindiko jokabideen eragileak. “Mugaz gaindikotasunaren gogoa” eman behar zaie, eta horretarako sarbidea erraztu behar zaie. Gazteendako mugaz gaindiko plan bat egitea komeni litzateke, arlo guziak barne hartuko lituzkeena (hezkuntza, goi mailako irakaskuntza, hizkuntza, garraioak, etxebizitza etab.).

# III.

# LA MISE EN ŒUVRE DE LA STRATÉGIE : ADAPTER LA GOUVERNANCE ET LES OUTILS

# III- ESTRATEGIAREN GAUZATZEA: GOBERNANTZAREN ETA TRESNEN EGOKITZEA

## 3.1 - UNE GOUVERNANCE TRANSFRONTALIÈRE

à rénover pour répondre aux ambitions stratégiques.

## 3.2 - DES OUTILS ET DES MÉTHODES

pour piloter la démarche, développer les axes et décliner les actions.

## 3.1 - MUGAZ GAINDIKO GOBERNANTZAREN

berritzea, anbizio estrategikoei ihardesteko - Horretarako, gogoeta batzorde baten sortzea

## 3.2 - TRESNAK ETA METODOAK

Desmartxaren gidatzeko, ardatzen garatzeko eta ekintzen gauzatzeko

